

Amaia Alday dimoztarra Athletic eta selekzinoagaz jokatu ten dabil

10. orrialdea

Mendi ederrenen irudiak Igorren

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, 2014ko Bilbao Mendi Film Festivalen parte hartutako bost film egongo dira ikusgai Igorren martiaren 6an eta 13an. Sari nagusia eroan eban *Valley Uprising* tartean. Mendirik Mendi argazki erakusketea hilaren 31ra arte egongo da Kultur Etxean. **11. orrialdea**



19an hasiko da Korrika Urepelen, guretik 28an pasauko da

12. orrialdea

TOKIKOM

begitu
arratia ubide zeberio

225

2015eko martiaren 3a
hamabostekaria
www.begitu.org

Mendi martxea eta beste ekitaldi asko martiaren 8aren inguruan

"Arratiako Emakumeak martxan... elkartu feminismora" lelopean iragarri dabe andra taldeak Arratiako Andren V. Mendi Martxea.

Arratiako andrak martxan dagoz, eta Andren Nazi-noarteko Egunaren inguruan makina bat ekintza antolatu dabez, Udal, andra alkarte, talde feminista eta Mankomunidadearen artean. Martiaren 4tik eta 11ra arte Arratia eta Zeberion berbaldi, kontzentrazino, mendi

martxa, frontenis topaketa, pelikula eta antzerki bitartez, andrak bizi daben desbardintasun egoerea salatu eta gizarte justuago bat aldarrikatuko dabe.

Arratia mailako alkarlanean egindako kartel horretatik kanpo ekitaldi gehiago dagoz herrietan. **5. orrialdea**



Arratiako Andren I. Mendi Martxea.

IGORRE

"Igorreko hizkeraren azterketa dialektologikoa" aurkeztu dau Aitor Iglesias filologoak

Aitor Iglesias Basauriko filologoak hamar urte baino gehiago egin ditu Igorreko euskerea aztertzen eta urtailean "Igorreko hizkeraren azterketa dialektologikoa" doktorego tesia aurkeztu eta bikain notea atera eban. Edadeko jentearen agozko berbetea jaso dau horretarako eta dialektologian egin diran sailkapen orokorretan agertzen diran ezaugarriak agertzen dirala Igorreko herri berbakeran ondorioztatu dau bertan. Egilearen arabera gixi aztertu dira herri berbakerak. Gurean Zeberiokoa eta Igorrekoa baino ez. **8. eta 9. orrialdeak**

LEMOA

Hilario Blanco Reguero milizianoa omendu dau Lemoak

Lemoako Memoria Historikoaren I. Astean Hilario Blanco Reguero milizianoa omendu eban Lemoak zezeilaren 21ean. Hilario Blancoren hobia Lemoatx mendian topau eban 2014an eta haren senideai emon eutsezan gorpuzkia eta objektu personalak milizianoa oroitu eta omentzeko udaletxean egindako ekitaldi baten. Saioa Elejabarrieta alkatearen arabera, Lemoako Udalak aitortpena, justizia, erreparazino eta holangorik barriro gertatuko ez dan konpromisogaz jarraituko dau beharrean.

Beste ekitaldi asko be egon ziran astean zehar. Koloretsuena akaso,

hurrengo egunean Frentes de Euzkadi taldearen eskutik egindakoa izan zan. Zornotatik Lemoatxara gudariak 1937an egindako ibilbidea egin eta gero, Lemoatxako batailea antzestu eban lubakietan.

Paco Etxeberria Aranzadiko presidenteak honeri guztiari marko teorikoa emon eutsan, Memoria Historikoa berreskuratzea Giza Eskubideen barruan kokatuz. Hildakoak eta biktimak eskubideak daukiez eta erakundeen betebeharra eskubide honeek gauzatzeko lan egitea da. **7. orrialdea**



· Psikologia orokorra
· Familia eta bikote terapia
· Psikoontologia (esku hartze psikologikoa minbiziak jotako gaixo eta euren familiakaz)

· Sexologia
Konsulta pribadua, etxean eta on-line

Sagrario Martin Iñigo
Psikologian doktorea

San Juan auzoa 29, behea · Igorre · 94 657 66 10
www.sagrariomartin.com · hola@sagrariomartin.com

R.P.S. 23/15

ARRATIA ZURI-BALTZEAN**MARTIN OTSOA BILDOSOLAKOA**

Erdi Aroan bizi izan zan merkatarri arratari bat dakargu oraingo honetan.

Gizaldi asko dira zoritarreko "Izurrite Baltza" izena daraman ez-behar izugarria jazo zala. Osteko hamarkadetan, 1380. urtean hain zuzen be, Bizkaiko lurraldea Gaztelako erregearen menpean egotera pasau zan. Egoera politiko barriaz ondo aprobetxatu ziran orduko negozioetako gizonak, besteak beste. Bizkaian merkatarri trebeak egon ziran: euren kontrolpean egoan gure itsas portuetatik Europako iparraldeko herrialdeetara egiten zan Gaztelako ardi-lanearen esportazioa. Lanea edo artilanea ez eze burdina be saltzean eben atzerrian, eta handik hona oihalak eta ekarten

ebezan hemen saltzeako. Baina produktuak eroatea alde batetik bestera ez zan izaten lan erreza. Halan, mesetea eta euskal kostaldearen artean bideak zabaltzea lan garrantzitsua bihurtu zan orduko agintarientzat. Hareetatiko bide bat Gasteiztik Bilbora joian "Camino Real" izenekoa zan. Arratia eta Nerbioi ibaiaren haranak zeharkatuz, Bizkaiko Jaunak uribildu bi, Areatza lehenengo (1338. urtean) eta Ugao beranduago (1375ean), sortu zituan bere ibilbidean.

Sasoi horretan jaio zan Bildosolako Martin Otsoa, arteaztarra. Bildosolako etxea Kastilloko Andra Mari eleizeari jagokan (ehun urte inguru izango dira hondatu zala). Bildosolatarren leinua 1190. ur-

tetik egoan bertan, Antso Perez Bildosolakoak sortu ebanetik. Martin Otsoa gazterik hasi zan, antza, Bilbo eta Flandesen arteko merkataritzan edo komertzioan. Urte oparoak ezetu ei zituan, baina heriotzea heldu jakon oraindino sasoiko gizona zanean, 1401. urtean. Ohitura zan lez, hil aurretik, Flandesko Brujas edo Brugge uriko artisauen tailer baten itxi ei eban enkargauta bere hilobirako lauda grabatu bat. Laudea latoizko txapa bat izaten zan. Margolariak lehenengo difuntuaren irudiaren diseinua egiten eben eta gero grabatzaileak irudi hori marketan eben lapidearen gainean. Holan egin zanean, Bildosolako familiarrak Artearaino, Kastilloko Andra Mari parrokiaraino, ekarri eben metalezko pieza hori. (Egun, Bilboko Alde Zaharreko Euskal Museoan dago ikusgai). Martin

Otsoa hil arren, bere familiak jarraitu eban negozioen munduan. Harreman komertzialak Flandes herrialdeagaz ez ziran amaitu.

Gainera, Flandesen ikusten ebezan artelanak ikusita, Bildosola sendikoak zera gura izan eben: euren jaioterriko eleizearen erretaulak hango irudi erlijiosoakaz jantzi. 1.450. urte inguruan erosi eben "Piedade" bat (Ama Birjina Jesukristo altzoan daualarik), benetan ederra; eta, geroago, 1490-1510. urteen artean, maisu-artisau flamendar bateri enkargau eutsiezan beste hiru figura gotiko berantiar honeek: San Anton, Alejandriako Santa Katalina eta San Sebastian. (Gaur egun, Bilboko Eleiz Museoan dagoz). Bildosolatarrek merkantzien salerosleak izateaz aparte, artezaleak be izan ziran.

Angel Larrea

**TELEFONO INTERESGARRIAK****Larrialdiak**

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak
09:00etatik 22:00etara
Martiazen 2tik 8ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Martiazen 9tik 15era

Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Martiazen 16tik 22ra

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18

22:00etatik 09:00etara

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan**22:00etatik 09:00etara**

Lucia Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengoa 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Arrigorriaga

Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan

06:55ean eta 13:55ean.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.

Zeberio-Arrigorriaga

Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10,

11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriaga-Zeberio-Artea

Arrigorriagatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Artearaino heltzean da lanegun eta zapatuetan.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Arrigorriaga-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40, 12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.

Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

Babesleak:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Vicesecretaría de Política Lingüística



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Praktiketako ikaslea: Irati Urien.

Erredakzino taldea: Ainhoa Duñabeitia.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

Publizidadea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Azibar Sagarna eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.800 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 6.800 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

ZEURE BERBEA

Andra taldeen sarea indartuten

Arratiako andra batzuk coaching ikastaroa egin dogu Maru Sarasolagaz Areatzan. Parte hartzean egon garanon artean, Arratiako herri guztietako andrak egon gara, talde feminista eta andra alkarteetarik etorri garanak eta norbanakoak be bai; baina danok, andron eskubideak, "jabekuntza" eta gizartean dogun partaidetza ikusgarri egiteko Arratia mailan landuteko helburuagaz.

Konpartidu doguzan orduetan, norbanako indarguneak identifikatu eta sendotu doguz; baita mugatzen gaituen bildurrak gainditzeko modua landu be; entzutearen maila desbardinak be landu doguz eta talde eta sare moduan lan egiteko xedea identifikatu ariketa praktikoa interesgarriak eginez. Eta batez be, alkar ezagutu, konpartidu eta beharreen jarraitutako gogoia sendotu. Tailer honetan, andron arteko aliantza, alkartasuna eta konplizidatea lantzea zein garrantzitsua dan argi ikusi dogu partaideok, baita andren artean lan egiteko espazioak beharrezkoak doguzala.

Areatzako Emakume Foroak ikastaro hau egitea proposatu ebanean, bildurrik handiena an-

dra gitxi apuntauako ete ziran zan. Ez da holangorik gertatu, 16 andra egon gara ikastaroa egiten eta beste 8 kanpoan geratu dira lekurik ez egoalako. Datu hau sano positiboa da, Arratian daukagun inplikazio maila erakusten dau-lako. Beraz aurrera begira ikastaro gehiago antolatzeko aukerea aztertu behar dogu.

SARA GUTIERREZ EGILEOR

Korrika, erritu

Nozonoz komentatu dot lagunen batez gure errituen beharra eta garrantzia. Orain arte erlijioak izan dauz monopolizata eguneroak zein bizitzako une garrantzitsuetakoak, baita gizarteak be. Gertatzen da baina, erlijiozale ez garanok be behar doguzala gure sentimendu eta espiritualtasuna kanalizetako, sozializetako, zeren parte garan azalduteko, sinboloen bidez errealitatea adierazo eta geureganatzeko. Nik neuk, behintzat, gustuko dodaz, beharrezko.

Erlijiotik kanpo erritualizatu barik daukaguzalako, gatx egiten jaku, honelako egoerak kanalizetate: hurreko baten heriotzan agur

esateko modua aurkitzea, jaiobarriari ondo etorria egitea... eta holangoetan bakotxa bere kasa ibiltzen gara. Jakina, bidea egin egiten da; sortuko doguz ibilian-ibilian bai erritu pertsonalak bai kolektiboak.

Nik, berbarako, personalen artekoa dot domeketako paseoa, benetan erritu itxura dauka niretzat, umetan hainbeste urtetan mezatara joan ostean, eukaristia paganoa behar neban domeketarako, antza, eta hortxe aurkitu: gure mendi eta inguruetako ibilaldi kontenplatioan.

Gustura irakurriko neuke antropologoren batek aztertuko baleu ze lotura daukan mendiak euskaldunon sinbologia eta espiritualtasunagaz. Zenbat erritu gure mendietan: erromeri, omenaldi, ibilaldi, urte-barri ospakizun, heriotz errautsen sakabanatze...

Eta euskaldunon errituez berba egiterakoan uste dot esan geinke-la barri bat sortu dogula atzen urteotan: Korrikarena.

Ba, bai, Korrika erritu kolektibo pagano bihurtu da guretzat, XXI. mendeko euskal peregrinazioa. Badauka bere izakera sinbolikoa be, gure mitorik maitatuenaren adierazle dana: euskaradun herriaren betirakotasuna.

Urtero parte hartu dogun edadekook emozioari eutsi ezinik, ahal dogun neurrian, egiten dogu Korrika-ibilbidetxo eta jaiotz zira-netik ezetu dabene euskal gazteak gogotsu ekiten deustie. Esango neuke gure erritu barririk errotuenetakotzat daukiela. Ikusi besterik ez, zenbaterik hartzean dabene parte.

Alabea be horren adibide dot: kanpoan 9 hilabete eginda, bakkarik bueltauko da etxera Gabonetarako eta Bilboko Korrikaren amaierarako.

Iragarki famadu batek egin eban ospetsu, *vuelve a casa por Navidad*, eta hainbeste gazte euskaldun kanpoan bizi diran honetan hasi beharko dogu beste hau be lau haizetara oihukatzen: Erdu etxera, Korrika da berton.

MAITE ARTABE URKIRI

ERETXIA



BEGOÑA PEDROSA

Mondragon Unibersidadeko Humanidade eta Hezkuntza Zientzietako Fakultadeko dekanoa

Hezkuntza: duintasunerako tresna

Baltistan Fundazioa Gobernuz Kanpoko Erakunde bat da Pakistango iparraldean dagoan Baltistango Hushe bailaran bizi diran pertsonen garapenerako lan egiten dauana. Hainbat proiektu daukiez martxan, eta horreen artean badaukie hezkuntzara bideratzen dan bat: nesken eskolatzeko prozesuan eragitea. Mondragon Unibersidadeak fundazioaren proiektu hau babestu gura dau, eta horretarako ekimen polit bat proposatu dau 100 ikasleren eta 2 irakasleren formazioan lagunduteko. Zertan datza? Ba, 8.035 metro daukan Pakistango Gasherbrum mendi tontorrera "irudiz iristea", horretarako, Instagram-en egindako 8.035 argazki batu beharko dira. Bildutako 1.000 argazkiko, unibersidadeak 12 beka emongo deustaz fundazioari, gainera, mendiaren mapan zehaztuta dagozan "kanpaleku" batera iristen dan bakotxean, unibersidadeak finantziatuko dau eskola bat. Horrez gainera, gailurrera "iristean", hau da, partaideak 8.035 argazki bialtzen dabenezan, 16 beka gehiago egongo dira ikasleentzat eta Aga Khan Unibersidadean irakasle bi prestatzeko beka bana be bai.

Batetik, pentsatu behar dogu komunitatearen garapenerako egitasmoa dala hau; pertsonen garapenerako, esango neuke. Bertako neskak eskubide eta

aukera duin batzuk izan dagiezan. Hezkuntzaren sustapenerako eta, aldi berean, ekidatean eragiteko asmoagaz bultzatutakoa, hain zuzen. Izan be, duintasunez biziteko berme bat zabaldu gura dogu ekimen honegatzat. Azpimarratu behar da eskolatzeko prozesua gatxa dala bailara haretan; batez be neskatoentzat. Fundazioak indar handia ipintzen dau bardingintasunean eskolatzeko neska-mutilak, eta kalidatezko hezkuntza prozesu baten murgildu daitezten.

Bestetik, atxakia be bada gazteen inplikazioan eta kontzientzian eragiteko. Krisi sasoi baten sartuta gagoz eta giza-talde ahulak zuzendutako ekimenak balioan jarri behar doguz, guztioen balioetan eragingo dabelako. Esan behar dogu hezkuntza eragile guztiai hurretik toketan jakun gaia dala hau. Egia da atzen egun honeetan bolo-bolo darabilguzan LOMCE eta Heziberri horreetatik urrun dagoan gaia dala. Bai, baina holango errealitate gordina begiratuteak jabetzen gaitu Hezkuntzak (letra larriaz) daukan garrantziaz. Labur esanda: hezkuntza beharrezkoa dala munduari zentzua hartzeako eta emoteko. Azken finean, ume eta persona guztiak daukien eskubide bateri buruz gabiliz, ezta? Izan be, hezkuntzarako aukerak ziurtatzen doguzanean, beste guztiak atzetik datozalako, edo holan, behintzat, adierazoten da Giza Eskubideen Adierazpen Unibersalean. Beste modu baten esanda, gizaki guztiok daukagu eskubidea aske izateko, baina horretarako hezkuntzarako atea zabalik eukitea beharrezkoa da.

Amaitzeko, danontzat ezaguna dan pentsalari eta bake gizon baten berbak gogora ekarri gurako neukez: "Hezkuntza arma bat da. Mundua aldatzen saiatzeko erabili behar dogun tresnarik poderetsuena eta norberaren garapenerako oinarri nagusia". Zelan ukatu, ba, hezkuntzara sarbidea?

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Marti

MARTXOA		MARTIA					
1	2	3	4	5	6	7	8
	2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15	
16	17	18	19	20	21	22	
23	24	25	26	27	28	29	

Martia urtearen hirugarren hilebetea da (martie, agoskatuta). Batuaz, martxoaren esaten da.

Marti izena latinetik hartuta dago, mitologiako Marte jainko erromatarren izenetik, hain zuzen be. Orduko denporetan, itargiaren egutegiaren arabera, Erroman urtea martian hasten zan: lurak ereiteko, gerrak egiteko sasoi egokiagoa edo zalako. Marti berbea forma alkartu edo konposatuetan be erabilten dogu, esate baterako, marti-zozo edo marti-oilar esateko.

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...

...BAGARA ETA IZANGO GARA

LUMATUTEN



UNAI SANTOS

Espilu baltza

Orain dala gitxi hortik zehar irakurri neban espilu baltzaren idea bixia. Kontua da, gaur egun gure bizimoduak espilu baltz ugariz inguratu doguzala: telefono mobilorra, portatila, argazki kamera digitala, tablet-a, gps-a, mp3 erreproduktorea... eta beste hamaika tramankulu teknologiko gehiago. Dan-danak pantaila bateri begira egotea eskatzen deuskuenak. Dan-danak, behin itzalita, espilu baltzaren antza hartzean dabena. Inork derrigortu barik, minutuak, orduak eta egunak pasetan doguz espilu hotz eta dirdiratsu horreei begira.

Espilu baltzak dirala eta, gaur egun garraibide publikoetan gertatzen dana etorri jatan burura. Metroa, esate baterako. Benetan be atenzinoa deitzean dau edozein egunetan metroko bagoi baten sartu eta zenbat persona ikusi daikeguzan euren pantaila txikiak adi, burumakur denpora guztian. Nerabe, gazte zein heldu, adinak ez dau ardu-

ra. Nire kasuan, aitortu behar dot gustetan jatala, metroan noala, inguruko jenteari disimuluan begiratutea. Ondoan daukadan persona bakotxari erreparau eta arpegi bakotxaren atzean egon daiteken istorioa imajinetea. "Nora ete doa tipo hau?", "beste horren arpegia ezaguna egiten jata", "neska hura urduri dagoala emoten dau, baleiteke beharrean arazoren bat izatea...". Denporea pasetako modu entretenigarria izan da beti (ezta?). Gaur egun, ordea, gatxa izaten da hori egitea. Izan be, bidaiari askok eta askok, bururik jaso barik, euren begiak pantailara katigatuta daukiez (nik neuk be bai sarritan, klaro). Bakotxa bere eskuetan kabituten dan mundu-txiki-birtuakari adi, inguruan gertatzen danari erreparau barik. Itsu, mutu, gor. Personeren arteko alkarrizketak gitxitu egin dira eta begiradak apenas gurutzatzen dira. Atzamarrak, aldiz, martxa bizian dabiz, presaz idazten, mundua bihar bertan amaituko balitz bezala. Dana dala, bizitzak aurrera jarraituko dau, metroak bezala, guk espilu baltzari begira segiduten dogun bitartean, burua altxau barik.

ZERTZEAN



UNAX IRAZABAL

Iraganaren hotsak

Eguzkiak eguna argitu,
oilarrak kanta du erditu.

Haizkorak enborrean jo,
hementxe nago zuri so.

Erretzen den egurrak sua,
lantzen denak damaigu zura.

Latsak basoan daroa ur,
dabilenari diotso agur.

Urtaroak negu ta uda,
mundutik at ez dago guda.

Izotza, horma ta leie,
negu gorria dugu deike.

Gauean inork ez aditu,
halere, elurak lurra zuritu.

Otsailetik azarora hamar,
hilabeteak ilargiari mar-mar.

Aberatsak zenbat zaldi,
orak soinean hainbat ardi.

Euskaldunok ozen kantua,
Batzuk nahiago kontua.

Urrutiko intxaurrak hamaika,
nire herria ez da jamaika.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

1937an legez, gudari eta milizianoz bete ziran Lemoatxako inguruak zezeilaren 22an. Oraingoan baina, ez zan odolik isuri.

Lemoako Memoria Historikoaren Astearren barruan, hainbat lagunek Zornotzatik Lemoatxara, gudariak egindako ibilbidea egin eben, gudari eta miliziano jantzitako Frentes de Euzkadi taldekoak. Partaideak modu diferentean begiratu eutsien askorentzat sano ezaguna zan inguruari. Giroak, zorionez, ez eban zerikusirik izan gerra sasoikoagaz eta eguraldiak lagundu ez arren, esperientzia polita izan zan. Izan be, gerrearen biktimai zor jakien memoria eskubidea gauzatu teko modu bat izan zan.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika

hagin klinika

Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarribia

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Hilategi Zerbetea 900
R.P.S. 21/06

FISIOTERAPIA **Sasobide**

Balneario Areatza

Tania Fernandez Santiago
COL. 1718

www.gruposasobide.com Tel.: 94 657 54 50

ARRATIA

Arratiako andrak bat eginda eta martxan ospatuko dabe martiaren 8a

Andren Nazinoarteko Egunaren inguruan, makina bat ekintza antolatu dira Arratian Udal, andra alkarte, talde feminista eta Mankomunidadearen artean. Berbaldiak, kontzentrazioa, mendi urtekerea eta I. Frontenis Topaketea izango dira ekintza honeetako batzuk. Andren memoria, parte hartzea gizarlean, eta protagonismoa kirolean eta artean aldarrikatuko dabe andrak eta bardintasunaren alde dagozan gizonak ekintza horreen bitartez. Kontzentrazioa Andren Nazinoarteko Egunean bertan izango da, martiaren 8an, 13:00etan Igorreko Kultur Etxe parean.

Erredakzioa

Arratiako andra alkarte, talde feminista eta erakundeak konziente dira andren eskubideak lortzeako alkarlana behar dala. Lehenengo pausua orain urte batzuk egin eben, martiaren 8ko eta zemen-diaren 25eko kartel bateratua eginda; eta orain, data honeetatik harago, helburuak lortzeako indarrak batzean dituan sarea egiten dabez alkarte eta taldeak.

Era berean, Arratiako Udalen Mankomunidadeak martiaren 8ko deklarazio instituzionala

onartu dau. "Aurten be, mobimentu feministeak eta andren alkarteen mobimentuak zein andra eta gizonen mobimentuak bardintasuna lortzeako asmoz egindako lana azpimarratu gura izan da, euren lanari esker, andren eskubideak gauzatzen joan diralako" dino Miren Urresti Mankomunidadeko Bardintasun Zerbitzuko Teknikariak.

Memoria eta historia

Andren memoriak protagonismo handia hartu dau aurten antolatu daben ekintza egitarauan. Holan

Areatzan, Areatzako andren historia eta bizi esperientzien gaineko dokumentalaren trailerra aurkeztuko da martiaren 6an. Areatzako Emakume Foroaren ekimenez egindako lana da hau, Areatzako Udalak eta BFAK diruz lagunduta. 2013an hasi ziran herriko hainbat andrari alkarrizketak eta grabazioak egiten eta 2015ean amaitu eta aurkeztuko dabe. "Dokumentala guzti osotu barik dago, arlo batzuk lantzeako geratzen jakuz eta hurrengo asteotan falta diran alkarrizketak grabauko doguz" azaldu deutso BEGURI Sara Gutierrez Forokoak.

Hurrengo egunean, hilak 7, 17:30ean Arantzazun ikusi ahal izango dan Tanya Wexler-en *Hysteria* pelikulea, viktoriar Ingalaterran dago girotuta. Bertan, umorez sasoi haretako "histeriaren" tratamendu gogorak zelan ahalbideratu eban bibradorearen asmakizuna kontetan da. Igorreko *Konpota* antzezlanak be andrak historian izan daben papela landuten dau. Hau be martiaren 7an izango da, arrastiko zortziretan Igorreko Kultur Etxean.

Protagonismoa artea eta kirolean

Toti Martinez de Lezearen berbal-di batek emongo deutso hasikerea Andren Nazinoarteko Egunaren inguruko ekintza honeei. Bertan, idazleak "Andrak zergaitik protagonista liburuetan?" itaunari erantzungo deutso. Zeanuriz izango da berbaldi hau hilaren 5ean, arrastiko zazpiretan.

Bardintasunaren aldeko murala Bediako Gazte Txokoan, hilaren 6an eta ipuin kontalaria Artean, 8an, ildo horretatik doazen beste ekintza bi dira.

Kirolari jagokonean, barriz, zita bi. Lehenengo Diman. Han, I. Frontenis Topaketea antolatu dabe martiaren 7rako. Hamalau urtetik gorako gura daben andra guztiak hartu leikie parte frontenis topaketa honetan. Frontoian bertan egingo dira bikoteak eta txapelketea antolatuko da. Mai-



la bi egongo dira, hasibariak eta "profesionalak", eta parte hartzeako alde aurretik emon behar da izena 605 731 313 telefonora deituta.

Hurrengo egunean, domekan, urtero-urtero arrakasta handia izan dauan Arratiako Andren Mendi Martxea izango da. Bosgarren edizino honetan ibilbidea Igorreko auzuneetatik pasauko da 10:00etan Kultur Etxetik urtenda, San Kristobal, Urkuzu eta abarretik pare bat orduko ibilbidea egingo dabe partaideak, Igorreko erdigunera bueltau aurretik.

Enplegua

Enpleguari jagokonean, sasoi txarra bizi dabe andrak eta egoera hau konponduten lagunduteko idea batzuk emoteko ekintza bat be aurrekusten dau egitarauak. Holan, hilaren 11n, "Emakumeen enplegua zelan sustatu" izeneko berbaldia egongo da, Lemoako Jubiladuen Etxeko goiko aretoan, arrastiko zazpiretan.

Horrezaz gainera, Mankomunidadeko Bardintasun Zerbitzua, Igorreko Institutuagaz batera, lan orientazio ez sexisteari buruzko tailerrak antolatu dauz gazteentzat, Institutuko Aste Kulturalaren barruan.

Ekintza gehiago

Kartel bateratua gida moduko bat da eta herriz herri ekintza interesgarrietako arteko zirkuitu bat egitea ahalbideratuten dau. Dana dala, hor agertzen diranak ez dira antolatu diran ekintza bakarrak, herri gehienetan beste ekintza batzuk be antolatu dabez, herrian geratzen diranentzat. Holan, batzuk aitatzearen, Areatzan, martiaren 6an trailerraren aurkezpenaren ondoren, pintxo-poteoa eta afaria egingo dabe bertako andrak; Bedian, egun berean, berbaldia eta txokolatea egongo dira arrastiko zazpiretan liburutegian; Diman, hurrengo egunean, poteoa, andren afaria Aramotz tabernan eta ondoren jantzaldia Jokaldi taldeagaz.

Zeberion Austari Kultura Alkar-teak ekintza bi eratu ditu Andren Nazinoarteko Egunaren inguruan,

bertsolaritzaren gaineko berbaldia eta andren arteko bazkaria. Berbaldia Ainhoa Agirreazaldegik egingo dau hilaren 4an eta bertsolaritzeari begirada feministegaz erreparauko deutso. Andren bazkaria martiaren 8an izango da.

Egitaraua

Martiak 4, eguaztena

19:00etan, Austari-kulturak antolatuta, Ainhoa Agirreazaldegiren berbaldia "Bertsolaritza: begirada feminista bat" udaletxeko aretoan.

Martiak 5, eguena

19:00etan, Toti Martinez de Lezearen berbaldia "Andrak, zergaitik protagonista liburuetan?" Zeanuriko Kultur Etxean.

Martiak 6, barikua

18:00etan, Bardintasunaren aldeko murala Bediako Gazte Txokoan. 19:00etan, berbaldia eta txokolatea Bediako liburutegian.

18:00etan, *Alardearen seme-alabak* dokumentala eta solasaldia. Ondoren, Areatzako Emakumeen Memoriari buruzko dokumentalaren trailerra. Areatzako udaletxean.

Martiak 7, zapatua

11:00etan, Andren arteko I. Frontenis Topaketea. 17:00etan pala partiduak. 21:30ean poteoa, 22:00etan andren afaria Aramotz tabernan eta ondoren jantzaldia Jokaldigaz. Diman.

17:30ean, *Hysteria* pelikulearen zineforuma. Arantzazuko erabilera anitzeko aretoan.

20:00etan *Konpota* antzerkia Igorreko Kultur Etxean.

Martiak 8, domeka

10:00etan, Andren Mendi Martxea. Igorreko Kultur Etxetik hasita.

13:00etan, kontzentrazioa Igorreko Kultur Etxe parean.

18:00etan, ipuin kontalaria "Emakumeen=kontaketa" Arateko ludotekan.

Martiak 11, eguaztena

19:00etan, berbaldia "Emakumeen enplegua zelan sustatu" Lemoako Jubiladu Etxeko goiko aretoan.

ZEANURI

EAJ-PNVren botoakaz onartu dira udal kontuak

Erredakzioa

Zezeilaren 26an onartu ziran 2015eko kontuak Zeanurin, EAJ-PNVren aldeko botoakaz. Bilduk kontrako botoa emon eban.

Onartutako kontuak superabita aurrekusten dabe eta diru sarrerak 1,6 milioeraino heldu ziran bitartean, 1,4 milioeko gastuak aurrekusten dira. "Aurrekontu austero baina superabitadunak aurkezten doguz. Zorra asko gixitu da eta zama finantzarioa be txikiagoa da. Gastua mantentzen eta diru sarrerak finkatu egin dira. Udalak ahalegin handia egin dau egoera ekonomikoa hobetuten" azaldu eban Izaskun Sagarna Zeanuriko alkateak.

Superabit hori diru sarrerak dagozalako eta gastuak muga bat daukielako gertatu dala azaldu eban Udal Idazkariak.

Osoko zuzenketea

Bilduk bere desadostasuna agertu eban batez be egiteko moduan. Aurrekontu honek

"ez dira parte hartzaileak, epeak ez dabez beteten eta gugaz ez dozue kontau" azaldu eben. Horregaitik osoko zuzenketea eskatu eben. Baina ez zan aurrera atera.

Parte hartzea garrantzitsutzat jo eban EAJ-PNVk be, baina bako-txak "modu diferentean neurtuten dau. Gu egunero egoten gara jentegaz eta euren ekarpenak kontuan hartzean doguz" esan eban alkateak. Bere ustean, eguneroko behar hori urtean behin batzar bat egitea baino eraginkorragoa da.

Ondoren zuzenketa partzialak aurkeztu ebezan eta hainbatetan akordioak lortu.

Irisgarritasuna

Lortutako akordio horreetako bat, udal bulegoak beheko solairuan ipinteko diru partida bat edegitea izan zan. Izan be, harrerea lehenengo pisuan dago eta eskailera estu batzuk igo behar dira edozein tramite egiteko. "Edadeko jentea keju egiten da" esan eben Bildukoak.

ARRATIA

Harrera alkartea lanean

Irati Urien

Harrera alkartea 2012an sortu zan. Bertako parte dogu "Txiki" Marañoñ zeanuriztarra. Kartzelatik zein erbestetik bueltatzeko jentartera egokitzeko eta euren bizitza barria duintasunez eregitiko ahalik eta laguntza handiena eskeintzea da Harrearen egitekoa. Lau alorretan dihardu: juridiko administratiboan, osasunean, lanean eta asistentzia ekonomikoan. Hasikera baten preso izandakoak osotu zan taldea, baina apurka-apurka zabaldutako egin da. Arratia mailan arduradun bana dago herri bakotxean eta ez dabe ezelango loturarik alderdi politiko edo instituzinoakaz, gutzit autonomoak dira.

"Behin kartzelatik zein erbestetik bueltatutakoan dana amaitu danaren ustea dago, beste bat etxean esaten dogu", dino Zeanurikoak. Ez ei da holan ostera, Marañoñek dinoanez preso izandako horreek topatzen daben egoera benetan gordina da; bere esanetan, eta Santos Berganzaren berbak hartuta, "orduaz hasten da maratoia".

Laster ipiniko dabe martxan kanpaina Arratian, eta bazkide egiteko triptikoak eskuragarri egongo dira. Gura dauanak Harrerako blogaren zein harreraalkartea@gmail.com helbidearen bitartez lagundu leike jada.

Zer gertatzen da arlo juridiko administratiboan?

Kartzelatik urten eta segiduan NAN-a hartzeako komisaldegira joatea jentearentzat sano deserosoa da zatozen lekutik etorrita. Eureka joatea komenidu da orduan, lagundutea. Kartzelatik urtendakoan "papel de excarcelación" emoten deusue eta horregaz subsidioa edo IRF papalak kobretan joan behar zara. Aitatzekoa da orain arte ez dala arazorik

izan baina orain dala hilabete batzuk gauzak aldatu egin dira: persona horrek kolektiboaren ildo politikoa jarraitzen dauala eta damurik agertzen ez dauala dino papel horrek eta hortaz gehienak normalean subsidio hori kobrau barik geratzen dira, narru gorritan.

Osasunean?

Bizi baldintzak oso eskasak dira osasun minimoa mantenduteko. Jenteak hainbat gose greba egin ditu eta horrek eragin fisiko egoten dira dentista edo oftalmologoa ikusi barik, ez daukie aukerarik eta. Zerbitzu hori zein beste batzuk eskeintzen deutseguz, baita arlo psikologikoan be.

Zein da lan munduan integretako erabilten dozuen tresna?

Lana, biziteko beharrezko izatetik aparte, duintasuna berreskuratzeko bidea be bada eta zailtasuna handia da; ez dabe esperientzia laboralik izaten, batzuek espetxean ikasketak egin ditue baina esperientzia bakoak dira, orduan beharra topatzea sano gatxa da. Behar hori topatzen be laguntzen deutsegu, Harrearen bere lan-boltsa propioa dauka. Igaztik hona hirurogeta bi lanpostu lortu ditue, norabide bitan: lan merkaduan, eta idea barriakaz autoenpleguan. Alor honetan ezin dira 65 urtetik gorakoak ahaztu, izan be ez dabe lan munduan sartzeako aukerarik izaten, orduan lan boltsa bat dago honeentzat be.

Eta asistentzia ekonomikoan?

Batzuek hamasei urte ebezanetik dagoz etxetik kanpora eta bueltan, lagunak kartzelan zein hilda izaten dabez. Familiagaz hartu-emon handirik ez izatea gertatzen jakie beste batzuei. Badagoz ezer ez daukienak, ezta etxerik be. Behar dauanari hilero bostehun euroko diru laguntzea emoten deusagu.

IGORRE/LEMOA

Berbalagun, jentea euskeraz ezetuten

Berbalagun proiektuaren helburua, euskera praktikau gura dauan jentea, normalean berba egiten dauanagaz alkartzean datza. Holan, hizkuntza ohiturak aldatu eta euskeraz gero eta berba gehiago egingo dabe, egunerokotasunean euskera modu naturalean erabiliz. Horretarako, hiruzpalau laguneko taldeak biltzean dira eta gura daben gainean egiten dabe berba.

Erredakzioa

Lemoako Udalak eta Arratiako AEK-k Berbalagun egitasmoa martxan ipini eben herrian 2013 urtearen amaieran. Gaur egun, 17 personak hartzean dabe parte eta astero biltzean dira lau taldetan bananduta. Talde bat martitzenetan batzean da arrastiko zazpietan Txoane tabernan; beste bat, eguaztenetan, bost eta erdietan Atxeta tabernan; hirugarrena be taberna horretan batzean da baina eguaztenetan goizeko hamaika t'erdietan, eta laugarrena Jubiladuen Etxean, goizeko bederati t'erdietan.

"Izan zaitez zu zeu be Berbalagun Lemoan"

Lemoako Berbalagun proiektua daroan AEKtik zera dino: "ondo pasau gura badozu, euskeraz berba egin gura badozu edo zure euskera hobetu gura badozu, izan zaitez zu be Berbalagun eta praktikau gugaz lotsa barik".

Berbalagunen parte hartzeako Lemoako euskaltegian eta udal-txean emon leiteke izena edo telefono honeetara deitu: Udala 94 631 30 05, Arratiako AEK 94 631 56 57 edo mezua bialdu helbide honetara: arratia_berba@ae.gov.

Igorren hiru talde

Igorren Berbalagun 2007. urtean



Ezkerretik eskoiera, Aitor Barrenetxea (Lemoako dinamizatzailea), Bego Alkorta, Rakel Ortega, Leire Iturbe, Pili Vicente, Susana Miranda eta Luci Linares.

ipini zan martxan. Sortu zanetik, gorabeherak izan ditu parte hartzaile kopuruari jagokionez eta oro har urtero 15 bat Berbalagun ibili izan dira, 3-4 taldetan bananduta. Momentu honetan hiru talde dagoz. Lehenengo taldea, astelehenetan batzean da 09:30etan Ayarzan; bigarrena martitzenetan, 18:00etan Gau Loran, eta hirugarrena, barikuetan, 19:00etan, Kultur Etxean.

2009. urtean herri bakotxak bere Berbalaguna mantenduta, Arratiako Berbalaguna sortzeako urratsak emon ziran eta 2009tik 2012ra bitartean, martxan egon zan. Holan, urtean hirutan ekintza

bateratuak egiten ziran. Gerora, koordinazio arazoakaitik bertan behera gelditu zala azaldu dau Amaia Arauzo Igorreko Euskera Teknikariak.

Mintzanet

Aurten Mintzanet proiektuaren barri be emon gura dau aprilean Igorreko Euskera Zerbitzuak, egingo dauan aurkezpen baten bidez. Mintzanet etxetik urten barik, ordenagailu bidez euskeraz berba egiteko aukerea emoten dauan proiektua da. www.mintzanet.net-en sartu eta izena baino ez da emon behar.

ARRATIA

Hamalau enpresa eta autoenplegu proiektuk enpresa ibilbideari ekingo deusie

Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunidadeak jakitera emon dauanaren arabera, Arratiako Eskualdea Berrakibetako Planari esker, hamalau enpresa eta autoenplegu proiektu barri sortu dira eta laster ekingo deusie enpresa ibilbideari. Proiektu horreen sustatzaileak bost andrazko eta bederati gizonezko dira, hain zuzen be; Arantzazuko 3 persona; Bediako bat, Dimako hiru, beste hiru Igorrekoak, Lemoako bi, Ubideko bat eta Zeanuriko beste bat. Sortuko dabezan enpresak

bailaran bertan ipiniko dabez.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomia Sustatzeko Sailak autoenpleguaren inguruan sensibilizatu, prestatu eta babesa emoteko asmoz martxan ipini eban Arratiako Eskualdea Berrakibetako Plan hau. Bere helburua da "Arratiako lan merkaduan barriro sartzeako zailtasunak daukiezan 45 urtetik gorakoai, gazteai eta iraupen luzeko langabeai emondako laguntzea fokalizatea. Uri bigarrenaren 15ean amaitutako trebakuntza aldi baten ostean, interesdunak ideak, negozio-planak eta bideragarritasunak aurkez-

tu ebezan. Trebakuntzako lehenengo fasean jasotako laguntzea 1.050 eurokoa (350 € hilean) izan zan, eta enpresea martxan ipinteko orduan, bariz, 5.000 eurokoa. Datozen hilabeteotan zehaztuko dira aukeraturako beste 33 proiektuak. BFAK Ekonomia Sustatzeko Sailaren eta DEMA foru erakunde publikoaren bitartez egin dauan inbersioa 165.000 eurokoa izan da" azaldu dabe Mankomunidadeak detik prensa ohar batez.

Eskualdea Berrakibetako Plana garagarrean aurkeztu zan Mankomunidadearen egoitzan, Igorren.



Harrera alkarteko "Txiki" Marañoñ.

LEMOA

Hilario Blanco 1936ko gerrako milizianoari oroimen ekitaldia egin deutso Lemoak



Saioa Elejabarrieta eta Monika Hernando Hilario Blancoren senitartekoakaz.

Erredakzinoa

Miliziano baten gorpuzkiak eta objektu personalak itzuli eutseezan senideai Lemoako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak zezeilaren 21ean udaletxean egindako oroimen ekitaldian. Aranzadi Zientzia Elkarteak egindako ikerketaren arabera, milizianoa Hilario Blanco Reguero zan, Barakaldokoa;

UGTren 28. batailoian ibili zan burrukan eta 1937ko bagilearen 3 eta 5aren artean hil eben Lemoan. Bere arrebeak eta lobeak jaso ebezan, hunkituta, haren oroigarriak.

Ekitaldian, Hilario Blancoren senideez gainera, Saioa Elejabarrieta Lemoako alkatea, Monika Hernando Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaria

eta Paco Etxeberria Aranzadi Zientzia Elkarteako presidentea egon ziran. Hernandok Eusko Jaurlaritzaren armarridun garrikoa emon eutsan Hilarioaren arrebea eta sendiari, eta Saioa Elejabarrietaren eskutik bere identifikazio plakea eta gorpuzkiak jaso ebezan.

"Omenaldi hori beraien familia eta militantzia kideai egin gura deutsegu. Alde batetik, burrukala-

rien gorpuk, duintasuna eta memoria berreskuratzeko izandako adore nekazegaitik; eta bestetik, dagoeneko dolua egin ahalko dabelako, burrukalarien oroitzepea behar bezala gordeteko. Izan be, horrenbeste urte, ahanztura eta lanaren ondoren, gaur, azkenean, egiaren zati bat berreskuratzeko gogoz, faxistak erakutsitako basakeria mesprextatuz" esan eban ekitaldian Saioa Elejabarrieta alkateak.

Euzko Gudarostearen garrikoa

2014ko uda partean, Lemoatxako lubakiak berreskuratzeko egindako beharretan Euzko Gudarostearen garriko bat topau eben mendiaren ipar magalean, lurzorutik sakonera gitxira. Ondoa gizonetako baten gorpuzkiak eta kartutxo-zorroak be topau ebezan. Inguru honetan, hau topau ebentik 30 metro ingurura hain zuzen, 2011n be topau ziran beste soldadu baten gorpuzkiak. 2014ko urri bigarrenaren 26an, hasi ziran lurretik aterateko eta identifiketako lanak. Gorpuzkiak eskumuturreko bat eukan plaka bategaz, eta han 72865 zenbakia eukan grabauta. Euskadiko Artxibo Historikoan ikusi eben zenbaki hori Hilario Blanco Regueroi jagokola.

Identifikatutakoan, sendiaren bila hasi eta arrebea bizirik dagoala jakin eben.

Lan honeek Aranzadi Zientzia Elkarteak egin dauz, Lemoatx 1937 alkartearen laguntzeagaz eta Lemoako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren bultzadeagaz.

Biktimen eskubideak, erakundeetan betebeharrak

Zezeilaren 24an egon zan ba-

rriro Lemoan Paco Etxeberria, Aranzadi Memoria Historikoaren gainean egin dauan beharra jakitera emoten. Memoria, biktimen eskubidea dala eta erakundeetan betebeharra, esan eban. Gogorra ekarri eban egun bi lehenago Lemoako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak parte hartu ebela Hilario Blancoren oroimen ekitaldian eta horixe dala jokaera zuzena adierazo eban.

Izan be, Etxeberriak azaldu eban moduan, biktima guztiak, edozein biktimari, egia, justizia eta erreparazioa zor jako. Eta orden horretan gauzatu behar dirala eskubide horreek esan eban. "Aranzadi egiaren "ontzia" beteten saiatuten da, gero beste eskubideetara heldu ahal izateko".

Gerra sasoiako biktimai bakarrik ez, frankismo sasoiakoi be biktimen eskubideak gauzatzeko egiten dau behar Aranzadi. Gerra sasoiak zenbat eta gehiago urrundu eta frankismoan sakondu, orduan eta ikertzeko oztopo gehiago topatzen dabela esan eban Etxeberriak. Egia jakiteko Egiaren Batzordeen premina defendidu eban.

Memoriaren beharrak

Aranzadiakoak testigantzak jaso, artxiboetan ikerketak egin eta lurpetik gorpuk ateraten dabez, beste gauza batzuen artean. 2003tik gaur arte (2002an Ibaurretan adierazpen instituzionala egin eban eta indarrean jarraituten dau) 1300 familia atendidu dabez eta 400 testigantza inguru jaso bideotan. Artxiboetan, EAEko 54.000 personen gaineko informazioaren bat jaso dabe eta EAEko biktima eta hobien erregistroa egiten dabe.

ARRATIA

Gorbeia, Konserbazino Bereziko Eremu izentatzeko prozesuan

Erredakzinoa

"Gorbeia" Natura 2000 Sareko naturgune babestua Konserbazino Bereziko Eremua (KBE) izentatzeko prozesuaren barruan, parte hartze tailerrak egin ziran konserbazino neurrien dokumentua prestatzeko. Areatzan zezeilaren 9an, tailer honeetan jasotako emoitak erakusteko bilera egin eben txosten teknikoak prestatzen dagozanak, Eusko Jaurlaritza eta BFAko ordezkariak eta prozesu honetako partaideak. Bertan, Maria Uribe BFAko Ingurumen Zuzendari Nagusiak eta Marta Rozas Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurumenaren eta Inguru Plangintzaren Zuzendaritzakoak tailerretan jasotako

ekarpenak zelan baloratu diran eta txosten teknikoan aintzat hartuko diran ala ez azaldu eben, ebatziak justifikauz. Bilera honek amaierara emon eutsan parte hartze prozesu sozialari.

Konserbazino Bereziko Eremua-



Marta Rozas eta Maria Uribe.

ren helburua, biodibersitatea mantentzea da, habitata eta espezieak zaindutearen bitartez.

Partaideak

Parte hartzerako 55 erakunde edo alkatere egozan deituta eta 34 personak hartu eben parte. Partaideen % 29 Administrazioa izan da, % 20 Basogintza; % 27 abeltzainak, % 15 basozain eta teknikariak eta beste % 9 interesa eukien beste batzuk.

ARTEA

Aurrekontuak ez dira onartu

Erredakzinoa

EAJ-PNVren botoak bakarrik lortu ebezan Udal Gobernuak aurkeztutako kontu proposamenak eta horreek ez dira nahikoak aurrera aterateko. Bildu eta Aldatuz Plataformea kontra agertu ziran. Kontuak ez ziran onartu, aurreko kontuen luzapena erabili beharko dabe aurten be Artean.

Erabiliko dabezan kontuak milioi bat euroko diru sarrerak eta gastuak aurreratu dabez. Kontu honek batera Musika Eskolako be bozkatzeko da. Hau, 400.000 euro ingurukoa da.

Arteak ez dauka zor finantziaririk.

Parte hartze handiago eske

Bilduren ustez Udal Gobernu-

ren kontuak ez dira sozialak eta egiteko moduagaz ez datoz bat. "Eredu parte hartzailea eskatzen dogu. Aurrekontu honek ez dagoz herritarrek eginda" esan eben. Egiteko moduagaz jarraituz, plangintza eta proiektu falteak ikusten dala be salatu eben Bildukoak.

Aldatuz Plataformakoak, barriz, aurrekontuak egiteko orduan, negoziatze batera heltzeak borondatek ez zala egon esan eben, eta horregaitik emon ebela kontrako botoa. "Alkateak plenoak onartutako mozioak bete behar ditu, baina Artean demokrazia hori ez dago" dino Aldatuz Plataformakoak.

Legegintzaldi osoan aurrekonturik ez dala onartu ekarri eben gogorra Bilduk eta Aldatuzek.

AITOR IGLESIAS

Igorreko euskerearen gaineko doktore tesia aurkeztu dau Aitor Iglesiasek



Aitor Iglesiasek.

Igorreko herri berbakera aztertutik dauan doktorego tesia aurkeztu eban Aitor Iglesiasek urtailan eta bikain notea atera. Egilearen arabera, sano gitxi aztertu dira Arratiako herri berbakera eta horregaitik aztertu dau berak Igorrekoa "Igorreko hizkeraren azterketa dialektologikoa" izeneko bere tesian. Zeberioko euskerea, barriz, Juan Manuel Etxebarriak aztertu eban 1988an "Zeberio haraneko euskararen azterketa etnolinguistikoa" izenekoan.

Erredakzioa

Aitor Iglesiasek Basauriko filologoak hamar urte baino gehiago egin

ditu Igorreko euskerea aztertzen. Edadeko jentearen agozko berbetea jaso dau horretarako eta dialektologian egin diran sailka-

pen orokorretan agertzen diran ezaugarriak agertzen dirala Igorreko herri berbakera ondorioztatzen dau bertan.

Zergaitik Igorreko euskerea?

Basaurikoa eginda egoan, eta Arratiari buruz ez egoan ezer. Ez egoan lan monografikorik. Artikuluak eta gauza solteak bai, baina lan bat oso-osorik herriko berbakera baten gainean ez egoan Arratian. Lehenengoa da. Gero jakin dot beste batzuk ibili zirala baina ez eben ezer argitaratu.

Dialektologian hutsune handi handi bat egoan Arratian. Eta Igorre Arratia erdian dagoanez, nik uste egokiena zala aztertze.

Zeintzuk dira herri berbakera honen mugak?

Nire erispidea Igorre geografikoki hartzea izan da. Horren barruan ez dot auzotik auzora desbardinatasunik topau. Baina bai barietate intrapersonalak.

Batzuetan, persona batek gauza bat esaten dau eta handik minutu batera beste modu baten esaten dau. Adibidez, "dabe" esateko persona batzuek esaten dabe "deure" eta persona berak minutu batera esan leike "deurie". Hautazkoak dira, aleatorioak. Personea ez da konzientea hori aldatzen daua, eta aurrean dagoana, ingurukoa bada, be ez da konturatzten. Bardin deuto, gainera.

Bestelako barietate ez dot topau.

Desbardina da Igorreko euskerea eta Lemoa, Dima, Arantzazu eta inguruko herrietako euskerea? Ze alde dago?

Hori aztertze dago, nik azterketa honetan Zeberioko euskereagaz konparatu dot. Eta hor desbar-

dintasun batzuk badagoz.

Zeberioko euskerea Arratiako barietatearen barruan dago?

Hori landu dot tesian. Dialektologian, Bonapartek esaten eban Zeberioko euskerea Arrigorriagako barietatean kokatu behar zala. Gerora, Manu Etxebarriak bere tesian esaten eban nonbait kokatzekotan Arratiakoagaz batera kokatu behar zala. Gero beste autore batzuk, Zuazok edo Gamindek gauza bera esan dabe, baina apur bat zintzilik geratu da.

Nik azterketa bi egin dodaz: bata kontrastiboa. Han, ezaugarriak agertu dira eta esaten da zeintzuk diran Zeberio Arratiagaz batzean daben ezaugarriak eta zeintzuk Arrigorriagako barietateagaz batzean dabenak. Eta oso argi dago Zeberio Arratiakoagaz batera kokatzen dala. Sano desbardinatasun gitxi dago Zeberiotik Igorrerara edo Zeanurira.

Analisi dialektometriko bat be egin dot, hau da, herri berbeten artean dagoan distantzia zenbakiakaz neurtu dot, formula matematikoki baten bidez. Analisi horrek be esaten dau Zeberio kokatu behar dala Arratiakoagaz, sano hurrean dagoala.

Manu Etxebarriak be horixe esan eban bere sasoian.

Zeintzuk dira Igorreko euskerearen ezaugarriak aitagarriak?

Horretarako, tesi osoa irakurri beharko neuke, kar, kar. Ez dago ezer beste inon topatzen ez danik. Adibidez, Igorren agertzen diran ezaugarri guztiak, Arratian eta

Zugaitik BEGITuten dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com
Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre
Tfnoa: 94 631 80 04

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

Bizkaifisios SLk
bi zentro ditu
Fisioterapia
Zentroa Igorre
Elexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08
Andra Mari Klinika
Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1. Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak
Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gitxitua
Begiko tentsioa
Lentilen adaptazinoak
Kiroletarako betaurrekoak
Salino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

Kili-Kili
Umeen denda
94 673 63 51
Agirre Lehendakaria 10
Igorre
kilikiligorre@gmail.com

begitu
arrieta abide eskola

Abel Lapatza Iza
Taxi zerbitzua 24 ordu
Dima
946 317 252
608 287 249

EGUNEKO OGIA
24h
vending pan
IGORRE
Lehendakari Agirre

ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa - Fiskala - Lanakoa - Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com



Arratiatik kanpo be topauko dira. Esan gura dot ez daukala ezer bezirik esateko "hau Igorrekoa da honegaitik". Ez. Ezaugarri batzuk topautakoan esan leiteke "hau Igorrekoa da". Baina beharbada, Lemoakoa dala be esan leiteke. Hori aztertu barik dago.

Zeintzuk dira tesiaren atalak?

Lehenengo kapitulu fonologia aztertu dot, bokalak, konsonanteak eta abar. Eta azentua be aztertu dot. Bueno, hori aspaldi aztertu neban. Badago artikulua bat hor Euskalinguan Igorreko azentuaren gainean. Eta oso polita da azentuaren gaia, ze desbardina da gauza baten Zeberioagaz: a bokalagaz amaituten diran berbetan desbardindu egiten da azentua.

Hurrengo atalean izen morfologia aztertu dot, deklinabidea eta hori guztia.

Gero aditza. Beste herri batzuetan aditz taulak osorik agertzen dira. Nik hutsune pilo bat itxi dot, aditz forma batzuk ez diralako erabilten. Jenteak erreztu eta sinplifikau egiten dau. Eta jenteak ez badau erabilten, nik ez dot ipini. Ezin dot asmatu. Aditza oso sinplea da. Adibidez aditz trinkoak iraganean oso gitxi erabilten dira. Perifrastikoak erabilten dira.

Sintaxian esaldiak aztertu dodaz eta gero hurrengo kapitulu berben alkarketea eta eratorpena; hau da, berbak zelan sortzean diran. Atzenik, emoitzak eta ondorioak.

Ze ondorio atera dozuz?

Konprobau dot Igorreko berbakea aztertuta, dialektologian egin diran sailkapen orokorretan agertzen diran ezaugarriak agertu be-

har zirala Igorrerako. Gehienetan agertu dira. Batzuetan zehaztasun batzuk egin behar ziran.

Nire ustez, ondoriorik nagusiena eta inportanteena zera izan da: nahiz eta Igorre geografikoki txikia izan, bariazio intrapersonal asko agertu dirala. Beharbada, uste genduan uniformeagoa zala berbakea hau, baina ez.

Igorreko azentua aztertu dozu sakon. Azaldu apurtxo bat azentuaren garrantzia.

Azentua oso garrantzitsua da. Arratiakoa guztiz desbardina da; eta horrek bai esaten dauala Arratiakoa nor dan. Azentua Ugaldek eta Gamindek aztertu dabe eta sailkapenean beti bereziki agertzen da mendebaldeko azentuetan Arratiakoa. Arratiakoa eta Zeberioakoa.

Azentua ipinteko berben neurria euki behar da kontuan. Hau da, berbea silaba bikoa bada ala silaba bi baino gehiagokoa. Eta pluralean, atzerago, ezkerretarago joaten dala azentua.

Lau azentu mota dagoz mendebaldean eta horreetako bat Arratiakoa da. Beste bat da kostaldean egiten dana, beste bat Basauri ingurukoa... Baina berezia da mendebaldeko euskeran Arratia eta Zeberioko azentua, oso desbardina dalako.

Sintaxia be agozkoa aztertu dozu?

Bai, agozko berbetea aztertu dot nik. Hogeit bat informante euki dodaz. Jente helduagaz ibili naz. Persona horreek izan behar ziran Igorrekoak bertakoak eta gurasoak be Igorrekoak. 70 urte ingurukoak izan behar ziran. Nik euren ber-

betea jaso dot. Persona horreen berbakea da, eta beharbada ez da gaur egun Igorren egiten dan berbakea. Izan be, persona horreek Igorren % 10 edo 15 izango dira asko jota. Ez dira asko.

Hitanorik erabilten da?

Aditzaren barruan sartu dot hitanoren azterketea eta hor be galera izugarria dago. Gizonezkoak erabilten dabe nahiko normal, baina andrazkoak ez. Itzelezko autodebekua edo debekua dago. Oso txarto ikusita dago andren artean hitanoa erabiltea. Gehienak esaten dabe ez dabela erabilten. Lagun baten bitartez lortu neban andrazko biren arteko hitanoa grabetea, oso ezagunak ziralako, bere auzokoak eta, klaro, niri ez eusten egingo... Esan neike guztiz galduta dagoala eta berorikeagaz antzekoa gertatzen da. Aurreko abadeak esan eustan andra batzuk berorika egiten deusiela, baina ia galduta dago.

Arratiako euskerearen ezaugarriak inportanteenak zeintzuk izango litzatekez?

Nabarmenena azentua da. Sintaxian, moduzko perpausetan "-na lez" agertzen da. Hori be Arratiakoa da. Beste guztia beste inon be topau daiteke.

Ze osasun dauka Igorreko eta Arratiako euskereak?

Egia esan, ez dakitsut erantzuten, nik hori ez dot aztertu. Hori soziolinguistikearen arloa da. Nik Igorren bertako jente gehiago edo errezagotopatzeara espero neban. Agirre Lehendakaria kalea nahiko barria da eta lehen ez zan existiduten. Igorreko jentea auzoetan topau behar izan da. Basauriko euskerearen aldean, osasun ona dauka Arratiako euskereak, kar, kar.

Behar honek beste gauza batzuk aztertze gogoa sortu deustu?

Niri gustauko litzakit generazi- noen arteko bariazioa aztertea. Honek dira 70 edo 80 urtekoak eta gustauko litzakit hartzea 40-50 ingurukoak eta gazteak hogetapiku urtekoak eta alderatzea, bariazioa zein izan dan ikusteko. Hori izango litzateke lanik politena. Aztertu barik geratu da. Eta intonazioa lantzea be bai. Ez dot landu intonazioa lan honetan.

Sano polita izango litzateke orain Institutuan dagozan neska- mutilak zelan egiten daben eta euren aitita-amamak zelan egiten eben ikustea.

Azentua eta moduzko perpausetan "-na lez" dira Arratiako bariedadearen berezko ezaugarriak

Berba egiterakoan jenteak aditza erreztu eta sinplifikau egiten dau



FUTBOLA

Amaia Alday: "Zoriontsuen egiten nauan kirola da"

Amaia Alday Arratia Futbol Taldeko jokalaria da Kadete mailan. Gaztea bada be, futbola bere bizitzaren parte inportantea da. Bost urte daroaz kirol honetan eta txiri-txiri gorantza doa dimoztarra; Euskal Selekzinoko zein Athletic-eko kamiseteagaz be joten deutso ostikadea baloiari.

Irati Urien**Zer da zuretzako futbola?**

Nire denpora librean zoriontsuen egiten nauan kirola da, batez be emon deustazan lagun eta aukerakaitik.

Euskal Selekzinoagaz jokatu-ko aukerea euki dozu oraintsu. Zelan izan zan?

Bai. Partiduak ikusten etorten dira. Torneora joan baino lehenago bost deialdi egiten dabez taldean ondo zabizen ikusteko. Atzenengo konbokatorian sartuten bazaitue torneora joateko da. Gure parti-

duak eta urte bete zaharragoenak ikusten etorten dira, taldera nor eroan gura daben jakiteko. Eurak abisetan dabe gero zerrenda baten bitartez.

Zerrenda horretan agertu zan zure izena. Zelan hartu zenuan barria?

Sano pozik parau nintzan, ez neban espero.

Zelango esperientzia izan da?

Selekzinokoa tenporala izaten da. Espainiako torneoa da eta faseak daukaz. Lehenengoa Huelvan euki genduan, Toledon bigarrena eta eliminau egin ginduezan; orduan



Amaia Alday selekzinoagaz.

datorren urtera arte bape be ez. Esperientzia oso polita izan da, desbardina.

Ze posiziotan jokatuten dozu?

Selekzinoan aurrelari. Ezpabere Arratian aurrelari, edo aurrean ezkerretik zein eskoietik.

Entrenamentu eta partidu fal-**tan ez zara egongo...**

Astean birritan entrenetan dot. Athletic-en be banabil, laugarren urtea da hau, orduan entrenamentu bat Lezaman eukiten dot eta bestea Arratian. Partiduak bat edo bi astegoienero.

Nora heldu gurako zeunke**futbolean?**

Athletic-era heldutea gustauko jatan, edo Lehenengo Mailako beste talde batera. Ezpabere Euskal Ligan jokatuten segiduko neuke.

Kromoen albuma amaituta?

(Barre egiten dau). Ez, ez. Ez dot amaitu, nahiko falta jataz ondino.

Begitu-Lagun,
zuretzat hiru opari honeek laster.
Eta zeuretzat be lagun egiten bazara!
Zu barik ez gara!

begitu
Begitu ezik ez da ikuste

begit
Begitu ez da ikuste

©Opariak: boltsea, Saguzarren profhezia liburua eta Berbategitxoa. Begitu-lagun kuotea: 35, 55 edo 75 euro urtean.

MENDIA

Txikonon espedizinokide bi etxera itzuli dira



Txikonon espedizinoko lagunakaz.

Erredakzioa

Alex Txikonon sare sozialen bitartez jakitera emondakoaren arabera, martiaren 1ean Behe Kanpalekura bueltau behar izan ziran. Bigarren Kanpalekura (6.100m.) heltzean saiatu ziran, baina edurrez gainezka egoan bidea, tarreetan "garriraino" eta baldintzak hobetu arte Behe Kanpalekuan geratzea ebatzi eben. Iraniarrak espedizinoa itxi eta etxera bueltau dira.

Bigarren Kanpalekurako bidean 5.300 m. taraino heldu ziran eta kanpalekura heltzea egingarri ikusten baeben be, edur azpitik dendea aterateko indar barik

egongo zirala eretxi eutsien. Izan be, hainbeste edur bota dau, dendak edur azpian geratzen dirala. Horregaitik buelta emon eta terrenoaren baldintzak hobetu eta eguraldiak beste aukera bat emon arte Behe Kanpalekuan geratzea ebatzi dabe.

Alex Txikonon blogean jasoten danaren arabera, iraniarrak espedizinoa ixteko errazoa da eurak ez dabela posible ikusten tontorra egitea: "edurra larregizkoa dala iruditzen jaku, arriskutsu dago eta gure herrialdetik igorri deuskuen informazioaren arabera eguraldiak ez dau hobera egingo; hortaz, guk behintzat, ezinezkoa ikusten dogu".

ERRUGBIA

Denporaldi makala Zekorrena

Ainhoa Duñabeitia

Zezeileko atzenengo zapatuan, hilak 28, norgehiagokea izan eban Arratiko Zekorrek taldeak. Igorreko San Txisme errugbi zelaian jokatu eben norgehiagokan, laugarren postuan dagoan Zaisa Irun taldea izan eban aurkari. Partidu eskasa Zekorrek egin ebena, halanda be goraiatzekoa izan zan partidua,

ez eben eta aldaketarik egiteko aukerarik izan. Atzen emoitzea Arratiko Zekorrek 14, Zaisa Irun RT 27 izan zan. Hurrengo neurketea be etxean jokatu dabe gureak martiaren 7an arrastiko 16:00etan Kanpazar Arrasate taldearen kontra, San Txisme zelaian.

Gogoratu umeak entrenetan jarraitzen dabela barikuro San Txisme zelaian.

MENDIA

2014ko Bilbao Mendi Film Festival sari nagusia irabazitako filma Igorren

Erredakzioa

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, 2014ko Bilbao Mendi Film Festivalean parte hartu eben filmak ikusi ahal izango dira Igorreko Lasarte Aretoan, martiaren 6an eta 13an, arrastiko 19:30ean. Guztira bost film izango dira eta tartean, sari nagusia eroan eban *Valley Uprising* filma proiektuak da. Jabi Baraiazarra Bilbao Mendi Film Festivaleko zuzendaria be egongo da Igorren.

Valley Uprising martiaren 6an ikusi ahal izango da, *Afterglow* film laburraren ostean. *Valley Uprising* filmak Yosemite haraneko eskaladearen historia ezetutera emoten dau. Artxiboko sekuentziak, irudien nahasketak eta eskalataileai egindako alkarizketak osotuten dabe dokumentala. Sasoi horretako gatazka politiko eta sozialak be azaltzen dira bertan.

Afterglow-k, barriz, 12 minutuko film laburrak, eski akrobatikoa dauka gaitzat.

Hiru film hurrengo saioan

Martiaren 13an, hiru film ikusteko aukerea egongo da. *Mission Antarctic* ordu erdiko dokumentala izango da lehenengoa. Bertan, Xavier de La Ruek Antartidara egindako espedizinoa kontetan da.

Ondoren, *2T on Pajju Peak* filmaren txandea izango da. 2013an Alberto Iñurrategik, Juan Vallejo



Bilbao Mendi Film Festivaleko pelikulak Igorren.

eta Mikel Zabalzak Karakorumen dagoan 6.610 metroko torrea, Pajju Peak, mendebaldetik eskalatzeko bertan behera itxi behar izan eben. Urte bat geroago, barriri saiatu ziran eta euren mugak probau ebezan erronka horretan.

Drawn filmak saioa amaituko dau. Bertan, artista eta eskalataileak dan Jeremy Collins-en lau urtetako biarjea kontetan da. Arte

eta abenturearen nahastea da film hau.

Argazki erakusketea

Martiaren 31ra arte, Ganzabal Mendi Taldeko bazkideen Mendirik Mendi argazki erakusketea egongo da Igorreko Kultur Etxean. 2014ko Argazki Lehiaketan parte hartutako argazkiak dira erakusketan honetan dagozanak.

FUTBOLA

Arratiak puntuak gehitzen jarraituten dau

Ainhoa Duñabeitia

Arratia Futbol Taldearen gizonen lehen taldeak atzen astegoen bietako neurketetan garaipena lortu dau. Hilaren 21ean, tensino handiko norgehiagokea jokatu eban Arratiak eta gatazkarik ez zan falta izan zale eta jokalarien artean. Giroa bero-bero egon zan partiduan zehar. Ortuella izan zan arratiarren aurkaria eta errez gailendu ziran gureak. Lau eta

batekoa izan zan atzen emoitzea. Zezeilaren 28an be garaipena lortu eban Arratiak, Larramendi taldearen kontra etxetik kanpo jokatu eban partiduan, 1 eta 2 irabaziz.

Andrazkoak osteran, hilaren 22an jokatu dabe gureak garaipena lortu eben. Gasteizko Neskak taldeari bi eta bat irabazita. Zezeilaren 28an barriz, ezin izan eutsen partidua irabazi 3. postuan dagoan Bizkerre taldeari. Bizkerre 2, Arratia 0 amaitu zan partidua.

Gizonezkoen bigarren taldeak hilaren 22an jokatu dabe gureak ez eban punturik lortu, Arratia B O, Loyola Indautxu 3 izan zan partiduen emoitzea.



umean meda
sem
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • seinmoda@hotmail.com

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN ✓
ZUZENBIDE
ZERGA ETA TERU KONTUTAN ✓
ONDARUN HIRIGIZINEN ASIGURUTAN ✓
Salbu Astea, 3-Txan: 94 671 71 41 - Fax: 94 671 94 91 - 48140 IGORRE

SESOREAK
basola Emaldi
ENBEN ADMINISTRAZIOA
Abokatuak
620. 57.86.04
aslerobasola@hotmail.com
Bilbao-Zeanuri

begitu
media eldiko sariak

KORRIKA

Korrika 19, Urepeletik Bilbora... Arratiatik

Badakigu, honezkerok, hile honen 19an hasiko dala Korrika Urepelen (Nafarroa Beherea), eta hamaika egun eta gauen buruan amaituko dala Bilbon, martiaren 29an. Martiaren 19an Urepelen hasiko da Korrika 19, beraz. Arrastiko 17:00etan, hasi be.

Arratiako AEK

Hegoaldean jai eguna izango denez, giro ederra eta parte hartze izugarria espero da. Horregaitik, Arratiako AEK-k autobusa antolatuko dau gura dauanak Urepelen egun pasa egin eta Korrikaren hasieran parte hartzeako. Informazioa gura dauanak Igorreko euskaltegia (94 631 56 57) izango dau.

Hasi eta hamargarren egunean sartuko da Korrika Arratian, martiaren 28an, hortaz, zapatu arrastian. Bitan sartuko da, gainera; halanda ze, gehiena zapatu arrasti eta gau partean egingo dau baina Bedia eta Lemoan goizaldean sartuko da. Hauxe da Korrika 19ren ibilbidea Arratian:

Martiaren 28an, Ubide (18:26) Zeanuri (19:40), Areatza

(20:08), Artea (20:14), Arantzazu (20:43), Igorre (20:57), eta Zeberio (21:52). Zeberiotik Ugaora joango da; Arrigorriaga, Basauri eta Galdakao zeharkatu eta gero, ostera be Arratian sartuko da Usansolotik. Martiaren 29an, goizaldean, Bedia (02:59), eta Lemoa (03:15) zeharkatuko ditu. Hemendik Zornotzara egingo dau Korrikak, eta handik Txorierrira, Bilbon goizean lehenengo orduan sartuta (07:23) eta eguerdian amaitzeko (12:30).

Berrogei kilometro izango dira gitxi gorabehera. Gogoratu edozeinek erosi leikeala kilometroa, bakarrik zein beste inogaz; bardin deutso erakunde, alkarte, familia, edo lagun kuadrilea izan. Modu horretara, jagokan kilometroaren petoa jantzi eta lekukoa eroan ahal izango dau erosleak. Kilo-

metroa erosteko edo beste edozertarako, jo Kubulu Euskaltegia (Lehendakari Agirre 4. Telefonoa, 94 631 56 57) goizeko hamaiketatik ordu batera; eta arrastiko bostetatik zazpiretara.

Zuberoako Maskaradea eta Niko Etxart Korrika Kulturalaren barruan

Korrika hasi aurretik, baina, bada-go zegaz gozatu Korrika Kulturalaren ingurumarian. Esaterako, martiaren 7an, Areatzan, gaueko 21:00etan, The Quiet Corner tabernan, Seiren taldearen kontzertua egongo da. Eta hurrengo astean, martiaren 13an Diman arrastiko bostetatik aurrera Zaztarrak taldearen eskutik tailerrak eta jokoak egongo dira frontoi txikian. Martiaren 14an oster, alde batetik, 12:00etatik 14:00etara



eta 17:00etatik aurrera Diman Zuberoako Maskaradea egongo da Gaztedi taldearen eskutik. Bestetik, egun berean, Areatzako Gaztetxeak antolatuta, Niko Etxartek emongo dau kontzertua gaueko 23:00etan hasita, Laminetxe Gaztetxean. Kontzertu honetarako sarerra mugatuak atera ditue, eta martiaren 6an zezeilaren 27an saldu ez ziran atzenengo sarerak ipiniko dira salgai Laminetxe Gaztetxean.

Hilaren 15ean, domeka, jai herrikoa egingo dabe Lemoan, Lemoako Harriketarrak Gazte Asanbladeak antolatuta. Goizean flashmoba eta, ostean, mokadua egingo dabe herriko hainbat eragilegatz batera.

Joxean's hil eben filma emongo dabe Areatzan domeka arrastiz, Euskera Batzordeak antolatuta arrastiko 18:30ean. *Ataun of the dead* trilogiaren bigarren zatia da film hau. Zonbiai buruzko pelikulen trilogia honetan, zonbi eta banpiroak karlista eta jeltzaleakaz burrukan agertzen dira. 700 euroko aurrekontuagaz egindako B serieko lana da hau.

Animau zaitezte eta Korrika Kulturalan parte hartu!

Informazio gehiago:

<http://www.korrika.eus>

www.facebook.com/aek.euskalakar

twitter.com/EuskalakarAEK

eta Arratian:

www.facebook.com/korrikaarratian.euskalakar.

LEHIAKETEAK

Lemoako IV. Narrazino Lehiaketea zabalik

Erredakzioa

Lemoako IV. Narrazino Lehiaketean parte hartzeako lanak bialdu daitezke apirilaren 23ra arte. Bertan 18 urtetik gorakoak hartu leikie parte. Gaia librea da.

Partaide bakotzak narrazino bakarria aurkeztu ahal izango dau eta gehieneko luzeera sei foliokoa izango da. Lanak Lemoako udaletxean aurkeztu behar dira edo helbide honetara bialdu kultura@lemoa.net.

Idazlanak izenburua edo izen-goitia bakarrik euki behar dabe, egilea idenfikau leiken ezelango zehetasun barik, datuok kartazal zarratu baten ipinita.

Sariak

Lau sari egongo dira. Lehenengo saria 250 eurokoa da; bigarrena, 150 eurokoa; hirugarrena, 100 eurokoa eta Lemoako bertako lehenengo saria beste 100 eurokoa. Saridun guztiak diploma jasoko dabe eta sari banaketea maizteko Aste Kulturalaren barruan izango da.

BERBALDIA

Ana Berrizbetitia teologoaren berbaldia

Erredakzioa

Arratiako Eleizak antolatuta, Ana Berrizbetitia Bilboko Teologia Institutuko irakasleak "Jesus eta emakumea" izeneko berbaldia egingo dau martiaren 13an, barikua, arrastiko zazpiretan Igorreko Kultur Etxean. Jesusen jarkerak abiapuntu hartuta, andren eskubide eta zereginen gainean egingo dau berba Berrizbetitiak.

Arratiako Eleizak gai honen gainean sakontzeko premina ikusten dau. "Frantzisko aita santuak be andrearen zeregina eta duintasuna sustatzera deitu izan dau. Aspaldi dabilz andra fededun eta teologoak ahalegin horretan. Arantzazuko parrokiako arduradun izan zan Mari Jose Arana horren eredu garbia dogu. Arratiako parroketan be andren beharra nahi eta nahiezkoa izanik gogoeta honetan sakontzeko aukerea izango dogu" dinoe eleizako iturriak.

IPUIN MUSIKATUA

Arratiako Musika Eskolak ipuin musikatua eskeiniko dau Lasarte Aretoan

Erredakzioa

Martiaren 15ean, Arratiako Musika Eskolako ikasleen koruak, irakasleen orkestrak eta tailerra eta prestakuntzako umeak prestatutako *Orkestraren bila* ipuin musikala aurkeztuko dabe Igorreko Lasarte Aretoan. Saio bi egongo dira; bata, goizeko 11:00etan, eta eguerdiko 13:00etan bestea.

Arratiako Musika Eskolak aurten 16. ipuin musikatua aurkeztuko dau. "Urtean-urtean egiten dogu ekintza hau eta gure ekintzarik potoloenetakoa da. Aretoa bete egiten da eta horregaitik egiten doguz saio bi" azaldu deutso BEGURI Garazi Olabarrieta Musika Eskolako irakasleak.

Beste batzuen artean, Louis Armstrong-en *What a wonderful world*, The Turtles-en *Happy to-*

gether, *Amelie* pelikulearen soinu bandea eta beste pelikula batzuetako piezak lagunduko dabe ipuina



2014ko ipuin musikatua.

kontetan. Ipuinaren helburua instrumentuak aurkeztea da. "Taldea bakotzak instrumentu bi irudikatzen dauz" dino Izaskun Arriaga Musika Eskolakoak. "Gitarrea eta bateria talde bat da, saxoa eta klarineta beste bat, tronpeteta eta flautea beste bat, trikitixa eta txalaparta beste bat, biolin eta biolontxelo beste bat eta piano eta akordeoia bestea" zehaztu dau Olabarrietak.

JAIA

Azken Barik Diman

Irati Urien

Dimako Gaztetxeak Azken Barik eguna antolatu dau martiaren 7an, zapatua. 13:00etan poteoa egingo da herriko tabernetatik zehar eta 15:00etan bazkaria egongo da Gaztetxean. 19:30ean esataridun aparteko pelota partiduagaz gozatu ahal izango da: Mikel Goñi-Ajuria vs Etxebarria-Varela. Kontzertuak egongo dira gaubean Gaztetxean 23:00etatik aurrera; Neke Politikoa, AZ/DZ eta dj Bull. "Azken barik ibilteko asmoa ei dau, egunak argitu arte behintzat".



LEHIAKETEAK

Zugan Ni jaialdiaren V. Kartel Lehiaketea martxan dago

Erredakzinoa

Nerabeak antzerki mundura hurreratzeko, Markeliñe Konpainiak Zugan Ni proiektua sortu eban. Ikasturte amaierako jaialdian, ikasturtean zehar 13 eta 18 urte bitarteko gaztetxoak sortu eta ensaiatutako antzezlanak taularatzen ditue. Jaialdi hau iragarteko eta gazteen artean sormena gehiago bultzatzeko, jaialdiaren kartela egiteko lehiaketea antolatuta dabe Markeliñekoak, aurten bosgarrenez.

Lehiaketa honetan 12 eta 18 urte bitarteko gazteak parte hartu leikie. Kartelak markeline@markeline.com edo zuganni@markeline.com helbidera bialdu behar dira apirilaren 1a baino lehen. Oinarriak eta informazio gehiago www.markeline.com helbidean. Irabazleak tablet bat izango dau sarizat.



ANTZERKIA

Konpota eta Erdibana antzezlanak Igorreko Kultur Etxean hileon



Martiaren 7an izango da antzerkia.

Erredakzinoa

Martiaren lehenengo zapatu bietan, antzerkia egongo da Igorreko Kultur Etxeko Lasarte Aretoan. Hilaren 7an, 20:00etan, Philippe Gaulier-en *Konpota* antzelana antzetzuko dau Eneritz Artetxek. Hurrengo zapatuan, hilak 14, Txalo Produzioak-en *Erdibana* lana egongo da ikusgai arrastiko zortziretan.

Antton Lukuk euskeratu eban eta Eneritz Artetxek egokitu, Gaulier-en *Konpota* antzelana. Pablo Ibarluzearen zuzendaritzapean, Eneritz Artetxek andra mitiko baten agotik egingo dau berba, andrak historian zehar euki daberen papeleren gainean. Errebelau egingo da, ironia, umorea eta amorrua erakutsiz.

Martiaren 8aren inguruko programazino barruan dago antzezlan hau.

Barre algarak egiteko komedia

Txalo produkzioak *Erdibana* taularatuko dau hurrengo zapatuan. Jose Ramon Soroz eta Iker Galartzak seme biren pertsonajeak



Erdibana hilaren 14an izango da.

antzetzuko dabez. Ama, jada urteetan sartuta, enbolia eta gripeagaz dago, baina ez dauka hiltzeko gogorik. 45 urteko semea dauka, hondatzen dagoan enpresa baten jaubea, eta bera zaintzen dauan 38 urteko beste bat. Gauerdian kontau ezin daitezkean sekretuak azaleratuko dira. Barre algarak egiteko komedia da *Erdibana*.

KIÑU

Laugarren Eizu Change Igorreko Kiñu Gaztetxean

Irati Urien

Eizu Change aurrera doa apurka-apurka, gero eta ezagunago eginaz. Laugarren azokea izango da martikoa, hileko bigarren domekan egiten dana. Dinamikiari jagokenean azoka alternatibo bat da. Bertan edozelangoak dira produktuak: ekologikoak, bigarren eskukoak zein profesionalagoak; beti be konsumo jasangarri baten alde. Momentuz hogeta bat dira postuak. Ibone Madariaga Kiñuko kideak adierazo dauenez sano erantzun ona eukiten dabiz standak. Bilbotik, Zumaiatik... hainbeste jente hurreratu da Gaztetxera baktaxa bere produktuakaz. Zelan ez Igitie taldekoak bi mahai daukiez beti, bertakoa bultzatutako asmoagaz. Espazioa dagoala eta, Arratiako beste bi pertsonak be badaukie euren lekutxoak. Mahai baktaxa bost euro ordainduten da, beste bost euroko fiantzeagaz. Or-

dutegia eta abarrekoak errespetatu ezker fiantsa hori bueltau egiten da. Apuntetako interesa daukanak eizu.change@gmail.com helbidera baino ez dau idatzi behar eta lekua egon ezker, barrura. Goizeko hamaiketatik iluntzeko zazpirtara bitartean domeka desbardin bat pasetako aukerea sortuten da Kiñun. "Aurrekoan umeen jokoak egon ziran, gurasoen erantzuna sano ona izan zan eta tabernea be zabalik egoten da. Giro itzela atzenez", dino Madariagak.

Ekintzak

Egutegia be elikatuaz doa Igorreko Gaztetxea. Hainbat dira bertako gazteak prestatu dabezan ekintzak. Besteak beste bi dira hile honetako zitak. Batetik, martiaren 1ean feminismoaren ganeko kafe-tertulia egin zan Arratiako Emairen eskutik. Martiaren 6an osterata Inedituak eta Txokorrek musika taldeak joko dabe 21:00etatik aurrera.



DUNBA

Haurraren garapen fisiko, sozial eta afektiboa

Nagore Aranburu Arnaiz. Zulaibarreko Haur Hezkuntzako ikaslea

Haur Hezkuntzako etapea, 0 eta 6 urte bitarteko umeetan zentretan dan hezkuntzea da. Hau, ziklo bitan bananduten da; lehenengo zikloan 0-3 urte bitarteko umeak sartzean dira, eta bigarren 3-6 urte bitartekoak.

Haur Hezkuntzako ikasle moduan, artikulu honen bitartez, ume baten garapen fisiko, sozial eta afektiborako etapa honek zer garrantzia daukan azaltzea da nire helburua.

Lehendabizi, umearen heziketea jaio aurretik hasten dala jakitea garrantzitsua da, hau da, umea haur eskolan hasi aurretik.

Umeak, inguruagazko lehen hartu-emonak zentzumeneren bitartez izaten ditu, amaren sabelean, eta momentu horretatik, bere burua izaki legez eregiten hasten da.

Jaio ostean, umearen garapenerako amaren titia hartzea be garrantzitsua da, honek umeari antigorputzak eta nutriente egokiak emoteaz gainera, amaren eta umearen arteko atxikimendu loturea handiagotzen dau eta.



Zulaibarreko ikasleak.

Bestalde gaineratu beharra dago, umeak gero eta lehenago hasten dirala haur eskolan, eta, gero eta denpora gehiago emoten dabela bertan. Haur guztiak haur eskolako lehenengo egunetako egokitzenetik pasatu behar dira;

baina zelan itxiko dogu umea haur eskolan?

Egokitzena beharrezkoa dabe eskolako ingurune barri horretara ohitzeko. Lehenengo egunean, ez da komenidu umea haur eskolara eroan, entretenu eta bat-batean



desagertzea umeari ezer esan barik. Hasikeran, umeari gelara sartzean lagunduko deusagu, ingurunea eta lagunak lasaitasunez ezetu dagaizan.

Egokitzena, irakaslearen rol afektiboa garrantzi handikoa da, umearen segurtasun irudi bihurtzeko.

Azkenik, umearen garapen egokirako, ezinbestekoa da eskola eta familiaren arteko alkarlana.

AGENDEA

MARTIAK 3
AREATZA

17:30ean, berbaldia "Lehen sorospinak: ziurtasun eta lasaitasun osoz jokatu ebeko arrisku eta istripuen aurrean". Udaletxean.

19:00etatik 20:00etara, hilaren 5era arte, Areatzako jubiladu alkarteak antolatuta, martiaren 30ean Arnedillora joateko izena emotea, Jubiladuen tabernan.

Martiaren 14ra arte, Frakazuri Gazte Asanbladak antolatuta, hilaren 29an sagardotegira joateko izena emotea, 619 342 133 telefonora deituta.

BEDIA

17:00etatik 20:00etara, hilaren 20ra arte, Bediako Txiki Txokorako, Udalekuetarako eta Uda Gaztearen izena emotea liburutegian. Txiki Txokoa, 3, 4 eta 5 urteko umeentzat da; Udalekuak 6-12 urte bitartekoentzat eta Uda Gaztea 13 eta 17 urte bitartekoentzat. Bagilaren 29tik garagarriaren 10era izango dira. Uda Gazteko biajerako be izen emotea. Biajea garagarriaren 20tik 26ra izango da Bartzelonara.

IGORRE

Ganzabalek antolatuta, hilaren 31ra arte, Mendirik Mendi argazki erakusketea. Kultur Etxean.

Hilaren 6ra arte, Axular Herriko Taberna barrizatzeko auzolana.

Futbolin Txapelketea. Izena Herriko, Kukuma, Hegazkiña edo Kiñu Gaztetxean emon hilaren 6ra arte. 5 euro bikoteko. Barikuro 19:00etan jokatu da.

MARTIAK 4
ZEBERIO

19:00etan, Austarri-kulturak antolatuta, Ainhoa Agirreazaldegiaren berbaldia "Bertsolaritza: begirada feminista bat" udaletxeko aretoan.

MARTIAK 5
ZEANURI

19:00etan, Toti Martinez de Lezearen berbaldia "Andrak zergaitik protagonista liburuetan?" Kultur Etxean.

MARTIAK 6
AREATZA

18:00etan, *Alardearen seme-alabak* dokumentala eta solasaldia. Areatzako Emakumeen Memoriari buruzko trailerraren aurkezpena udaletxean. Ostean pintxo-poteoa eta afaria.

BEDIA

18:00etan, bardintsunaren aldeko murala Gazte Txokoan. 19:00etan, berbaldia eta

txokolatea liburutegian.

DIMA

16:30etik 19:30era, martiaren 31ra arte, "Andrak literaturan" erakusketea liburutegian.

19:00etan, "Diman etxean gura doguz", presoan aldeko kontzentrazioa.

IGORRE

19:30ean, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Bilbao Mendi Film Festivaleko



Jostunak dokumentala Diman

Martiaren 13an, arrastiko zazpiretan, Gure Esku Dagok *Jostunak* dokumentala eskeiniko dau Dimako liburutegian. Dokumental honetan bagilaren 8ko giza katearen bidea eta erabagiteko eskubidearen gaineko hainbat eretxi jasoten dira.

Gure Esku Dagoren ekimena ez zan amaitu orduko giza kateagaz eta aurtun bagilaren 21ean, herrialdeetako uriburu bakoetxean ekitaldi handi eta ekimen ugari egingo ditue erabagiteko eskubidearen alde. Aurtengo dinamika erabagia ehundu edo jostearen inguruan izango da, eta horretarako ohialak izango dira herritarrak alkartzeko bitartekoak.

Zezeilaren 27an dimoztarrak bildu egin ziran eta ekimenari hasikerea emon eutsien, lehenengo atxikimenduak eta sarea josten hasteko lehenengo pausuak emonaz. Bilera horretan Diman 2015ean emongo dabezan urratsak aurkeztu ziran. Ekintzak prestatzeko batu ziran dimoztarrak eta helburuak eta plangintzea landu ebezan.

Martia eta apirilaren zehar atxikimenduak batzeako eta informazioa bananduteko mahai informatiboak ipiniko dabez plazan. Apirilaren 25ean, "Jostun eguna" ospatuko da.

pelikula bi: *Afterglow* eta *Valley Uprising* Lasarte Aretoan.

21:00etan Inedituak eta Txokorak musika taldeen kontzertua Kiñu Gaztetxean.

MARTIAK 7
ARANTZAZU

17:30ean, *Hysteria* pelikulearen zineforuma. Erabilera askotako aretoan.

AREATZA

21:00etan, Seiren taldearen kontzertua The Quiet Corner-en. Korrika Kulturalaren barruan.

DIMA

11:00etan, andren arteko I. Frontenis Topaketea. 17:00etan pala partiduak. 21:30ean poteoa, 22:00etan andren afaria Aramotz tabernan eta ondoren jantzialdia Jokaldigaz.

Azken Barik eguna. 13:00etan poteoa. 15:00etan bazkaria. 19:30ean pelota partiduak. 23:00etan kontzertuak eta dj Bull Gaztetxean.

IGORRE

20:00etan, antzerkia. *Konpota* Lasarte Aretoan.

LEMOA

Ganzabaleko Oroitze Eguna. Lemoa-Artaun. Urtemondo (791m.).

ZEBERIO

19:00etan, zinea *Lawrence anyway* (zuz.: Xavier Dolan) udaletxeko 2. solairuan.

MARTIAK 8
ARRATIA

10:00etan Andren V. Mendi Ibilaldia. Igorreko Kultur Etxetik hasita.

ARTEA

18:00etan, "Emakumezkoak-kontatzen" ipuin kontalaria. Ludotekan.

IGORRE

13:00etan, Andren Nazinoarteko Eguneko kontzentrazioa Kultur Etxe parean.

17:00etan, umeentzako zinea *Paddington*. 19:30ean, zinea *Descifrando el enigma (The imitation game)* Lasarte Aretoan.

Eizu Change azokea Kiñu Gaztetxean.

ZEBERIO

Andren arteko bazkaria.

MARTIAK 11
LEMOA

19:00etan, berbaldia "Andren enplegua zelan sustatu?". Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

MARTIAK 13
AREATZA

Parkebeak antolatuta Iñaki Gonzaloren berbaldia "Erleen mundu miresgarria".

21:00etan, Los Brazos taldearen kontzertua The Quiet Corner-en. *ST. Patrick's weekend*.

IGORRE

19:30ean, Ganzabalek antolatuta, Bilbao Mendi Film Festivaleko hiru film labur: *Mission Antarctic*, *27 on Pajju Peak* eta *Drawn* Lasarte Aretoan.

DIMA

17:00etatik aurrera Zaztaparrak taldearen eskutik jokoak eta tailerrak frontoi txikian. Korrika Kulturalaren barruan.

MARTIAK 14
AREATZA

21:00etan, Deiedra taldearen kontzertua The Quiet Corner-en. *ST. Patrick's weekend*.

23:00etan, Niko Ebxarten kontzertua Laminebe Gaztetxean. Korrika Kulturalaren barruan.

BEDIA

17:30ean, zinea *Monster House* ludotekan.

DIMA

12:00etatik 14:00etara herritik zehar eta 17:00etatik aurrera plazan, Gaztedi taldeak Zuberoako Maskaradea.

IGORRE

20:00etan, Txalo Produzinoak-en *Erdibana* antzezlan. Lasarte Aretoan.

MARTIAK 15
AREATZA

08:00etan mendira urtekerea Arralde (955m.)-Abirpe (917m.)-Aburi (942m.) eta Ugunako ur-jauzia. Lamino Mendi Taldea eta Guraso Elkarrekin antolatuta.

18:30ean *Joxean's hil eben* filma. Euskera Batzordeak antolatuta Udaletxeko Areto Nagusian. Korrika Kulturalaren barruan.

IGORRE

11:00etan eta 13:00etan, Arratiako Musika Eskolak ipuin musikatuak. Lasarte Aretoan.

17:00etan, zinea *Bob esponja*. 19:30ean, zinea *Siempre Alice*. Lasarte Aretoan.

LEMOA

Harrikerak Gazte Asanbladak antolatutako Korrikaren aldeko jaiak. Goizean zehar *flashmoba* eta ostean mokadutxoa eta beste jarduerak batzuk.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU
PISUA SALGAI

Zeanurin, plazan, duplex-a salgai. 100m², hiru logela, komun bi, trastelekua eta garajea. Eraikin barria. Interesauta egon ezker, 686 495 724 telefonora deitu.

DANERIK

ETXeko BEHARRAK EGITEN DODAZ

Haur zaintza edo etxeko beharrak egiteko persona bat behar dozula? ordu pare baterako, egun osorako edo-eta hile batzuetarako? Deitu konpromiso barik. Arlo horretan esperientzia eta kotxeduna (disponibilidade osoa) Eider 629 393 539.

KOTXeko GILTzak GALDU DODAZ

Zezeilaren 24an kotxeko giltzak galdu nebazan Igorren, Lasarte Aretoaren inguruan. Baten batek topau badauz deitu dagiala mesedez 665 732 565 telefonora.

BASERRIRAKO LAGUN BILA

Igorren, Urkuzuko baserri baten bizi gara eta lagun bila gabiz. 200 euro. Giro atsegina, ortua, oiloak, frutarbolak, internet-a eta aukera gehiago. Interesatuak

deitu: Izaskun 605 728 358 edo Txapu 669 311 309 edo idatzi izaskun_urbaneta@hotmail.com-era.

TXISTUA GALDU DOT

Abenduaren 21ean, Lemoako eleiza inguruan txistua galdu neban. Baten batek topau ezker deitu 677 497 985 telefonora mesedez.

BEHAR BILA

Etxeko beharrak eta garbiketarako egiten dodaz. Kotxeduna. 658 591 307.

INGELES ESKOLAK

Ingeles irakasleak eskola partikularrak emoten ditu. Cambridgeko "Certificate of Proficiency in English" titulua daukat eta Erresuma Batuan bizi izan naz 4 urtez. Irune 615 708 238.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Konpota* antzezlanerako.

Gotzone Amuriza (Igorre)
Ziortza Ajuriagerra (Dima)



2

Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Erdibana* antzezlanerako.

Aitziber Milikua (Areatza)
Gotzon Idirin (Zeanuri)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 12


urte eta

ehundaka

lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Bortitz. Boroa. 2.- Siku. Musika nota.
3.- Behin eta barriro, katuari deitzeako.
Materiaren oinarriko egoeretako bat.
4.- Bat erromatar. Kito. 5.- Entregau.
Bokala. 6.- Abxilotua.
7.- Gorputz atal bat. Tinbrearen
soinuaren onomatopeia. 8.- Hartu
eik. Musean erabilten da. 9.- Oxigenoa.
Behiaren ar heldu.

GOITIK BEHERA

1.- Igun. Bertsolaritzan erabilten da.
2.- Eguneroko janari. Itogin.
3.- Gaudimen. Azken letrea.
4.- Euskera zaharrean, txakur.
Greziako uhartea. Azpi. 5.- Letra bat.
Patzadaz. 6.- Langile Abertzaleen
Batzordea. Errez. 7.- Oihana. Zein
lekutan.



Topau zazpi fruta arbolen izenak.



AKI MI KO

Igor Menika



Igorren ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

ZEKUTZE
JATETXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83

Dia %
PEDRO
AUTOSERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu
Bixarra egin eta txukunduten dogu
Elexalde, 20 Rober 630 743 543
48.140 Igorre Manuel 661 848 793

MERKA LABELA-HARATEGIA
Etxeko produktioak
• Txerizotak
• Odoletzak
• Buskantzak
• Salbitzak
• Hamburgesak
Arratiko produktioak
• Beseriko akris
• Urtziak
• Beseriko arrautzak
• Zurrinak
• Harriak
• Geroika (fruta eta barazkiak)

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

Los Chopos
neurri egindako armairuak
Arda, Los Chopos, 55 (Nigar) Tel.: 94 430 40 94
Esposizinoa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ
Balonak: A1, A, BTT, B
Lehendakari Agirre 31
Tfnoa: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@euskalnet.net

AKITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia 609-79-40-54

KIRRU ILEAPANDEGIA SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 bago - 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 631 92 06

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskaraz zein erdaraz
Gorbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83
e-posta: uruzulu@euskalnet.net

TXEMA SALEGI URBIETA

Azkoitiar bat Ubiden

Txema Salegi azkoitiarra da sortzez baina gaztetatik hara-hona ibili izan da ia bizitza osoan, halaberrez. Beti be sukalde barruan sartuta. Tartean Iparraldean egoala, ubideztar batzuk ezetu eta bertara etortera animau eben. Egun, Ubideko Herriko Taberna daroa. Maite dau ostalaritza, maite dau natura eta maite dauz abereak. Barra barruan bera, beste aldean BEGITU, Ubideren erradiografia bat atera guran ibili gara.

Irati Urien

Zelan heldu zan azkoitiar bat Ubidera?

Mexikon hamar urtez izan nintzan eta ostalaritza munduan egin neban behar. Askok gustau izan jata beti ostalaritza. Iparraldean be urte asko emon nebazan eta Euskalduna Hotelean sukaldari ibili nintzan. Ubideko batzuk ezetu nebazan Iparraldean eta eurak esan eusten Ubidera joaten animetako, han baegoala Herriko Taberna bat eta han gustura egongo nintzala. Natura be hainbeste maite izan dot beti zel eta Ubide hori be eskeini eikidala adierazo eusten. Atzenezan ikustera etorri eta sano inpresino ona atera neban. Orain dala zortzi urte etorri nintzan lehenengoz Ubidera. Hona etorrita urtebete egon nintzan Herriko Tabernan baina azkoitiar zein familiakoak herritik kanpora hogeta hamabost urte egon nintzala eta bueltetera animau ninduen. Azkoitiko Laja erretegikoak orduan, ostalaritza lanean Iparraldean urte asko emon nebazala ekien eta nik bertan behar egitea eskatu eustan bertako jaubeak. Sei urte barru gau-

zak aldatu egin ziran ostera, krisia bete-bete sartzan eta gastu fijoak oso handiak ziran. Hilero 6000 euro atera behar ziran libre, gastu fijoak bakarrik ordaintzeko. Behar pilo bat egin behar zan gastuak pagetako. Ubideko kuadrila bat urtero etorten zan bisitea egiten eta barriro be Bizkaira bueltetea gura izaten eben, Herriko Tabernan egozanean ez ebela taberna ondo zertzean eta barriro animetako. Baietz ebatzi neban, eta hemen nago.

Zelangoa da Ubideko bizimodu?

Dana naturagaz erlazioz dago, bizi kalidatea dagoala esango neuke. Uriburuakaz konparau ezkerro aldea itzela da lasaitasun aldetik besteak beste.

Zenbat jente bizi da Ubiden?

185 inguru biziko gara. Kopuru hori astegoinetan bikoiztu egiten da. Hemen herriko jenteak kanpoan egiten dau behar, Bilbon, Durangon, Gasteizen... eta astegoinetan herri-erortzen dira gehienak. Orduantxe igarten da mobimentua. Adinari jagokonean danetik dago. Orain dala zortzi urte hemen nengoanean ez zan umerik ikusten eta orain ume

pilo bat dago. Sarritan afari zein bazkariak antolatuten doguz eta afarian bertan 27 zein 60 urtekoak batera ikusteak poza emoten dau, giroa itzela da, naturala.

Eta zelangoak dira ubideztarak? Badaukie izakeran berezitasunik?

Gatxa da definidutea, bakotxa mundu bat gara eta. Esan behar dot baina apur bat tristea egiten jatana euskerearen kontua dala. Herri guztiak ezetuten dau euskerea baina danak erderaz berba egiten dabela ikusten dot.

Zer egin leike Ubiden? Zer eskeintzen dau herriak?

Ingurua eskeintzen dau nire ustez, natura. Herri oso trankila da. Mendi bueltak egin, hamarretako egin... Niretzako herria oso ondo dago. Futbol zelaia dauka, frontoi ederra dauka, Gaztetxea be badago... infra-estruktura aldetik herriak ez dauala ezer falta esango neuke.

Nekazaritza eta abeltzaintza badaukie presentziarik?

Bai, badagoz artzain batzuk, baina gitxi. Lehen herri dana abeltzaintzatik eta ikatzetik bizi ei zan eta orain hori galdu egin da.

Badago Gorbeiera Ubidetik joateko ohiturarik?

Bai, baina gitxi. Ni Gorbeiera lehenengo aldiz igo nintzanean gogoratuten naz Pagomakurretik izan zala, Ubide egoanik be ez bertakoak ezetu arte. Edozein mapa hartu edo turismo bulego batera joan eta Ubide ez da inon agertuten. Zeanuri, Otxandio, Areatza... agertuten dira. Hutsune hori dauka, eta hemetik be igoera sano polita dala esan behar da.

Bizkaiko atzenengo herria da Ubide. Herritarrak 'gora' edo 'behera' jotzen dabe?

Nik pentsau gehienak Gasteizera, hurbilen dagoana da eta. Bizkaitarrak gara baina Gasteizera jotzen dogu.

Eta Arratiarrak, jotzen dabe Ubiderantz?

Citxi, nahiko gitxi. Egia be bada Zeanuriko kuadrilaren batek beti euki dauala etorteko ohitura. Bestela jentea perretxikotarako atxakiagaz ez bada, ez. Kazariak be bai, akaso.

Zelan ikusten dozu Ubideren etorkizuna?

Zaharrakaz berba egiten dozunean nahiko baltz. Izan be, eurek mila lagunetik gorako biztanleriagaz ikusi dabe Ubide. Lehenago esan dodana lez ikatza egiten zan, artzainak egozanean... eta hori dana galdu egin da ia-ia; orduan maila horretan txarto. Jente guztia uriburuetara joan da. Lehenago lana hemen egoan eta kanpotik etorten zan jentea behar-ean, eta orain, zelan lan hori galdu dan... barriro be txondorak egiten hasi beharko gara (barre egiten dau). Herria lo egiteko baino ez bihurtuten dabilen sensazioa daukat eta pena handia emoten deusta. Egin behar dana da jentea hemen geldituteko zeozer, arlo hori esplotau.

Eta zeure burua? Ubiden ikusten dozu aurrerantzean?

Bizimodu nonon egin behar da. Hona etorri nintzan, gustau egiten jatatz ingurua eta giroa, orduan momentuz behintzat hemen geratuko

naz. Apur bat falta jatan zer hori euskerearena da. Lan egin behar dogu danok gai honen gainean.

Zein da zure espezialitatea sukaldean?

Iparraldeko Euskalduna Hotelean kaza-jana asko prestetan genduan: basurdea, oilagorak, usoak... Orduan horixe esango neuke adibidez, gustuko dot kazakoak kozinetea. Halanda be danerik dago taberna honetan; menua eguneroko, menu berezia, plater konbinatuak... Akordetan naz lehen eguneroko hogeta hamar lagun etorten zirala jaten, eta astegoinetan bete egiten zala. Orain bajutxoago dago kontua, baina nahiz eta kostako dan, bagoaz.

Tabernan behar egiteko aparte bestelako zeozer egingo dau ba Txemak.

Lagunai ahuntzakaz eta lagunduten ibiltzen naz, sano gustetan jata. Mendi buelteta egin eta animaliarik ez dagoala ikustean tristetu egiten naz. Ganadu pilo bat ikusten dodanean ostera, gustura etorten naz, beste umore bategaz. Bedarra ondu behar danean edo dana dalakoa be, ingurukoai lagunduteko beti pozik eta prest egoten naz.





ALKIZABAL

www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net

Zabalik 07:00 - 19:00

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA

Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkaia)



Banatzaile
ofiziala








- Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
- Garraio zerbitzua.